

**Fly Shit taldea**
Diskoa aurkeztu zuten zapatuan
KULTURA, 20-21

**Aloña sailkapeneko lider bakarra da**
UDAk eta Mondrak irabazi egin dute: 1-0 eta 2-0, hurrenez hurren
KIROLA, 12-13

**'Nasdrovia Txejov'**
Emanaldiak bete egin zuen Amaia
KULTURA, 24



ASTELEHENEKO
# Goienkaria
ASTELEHENA • 2006ko otsailaren 13a • 2. urtea • 89. zenbakia • 0,90 euro

## Tortura salatuko dute Aretxabaletan, Bergaran eta Oñatin

*Torturaren kontrako eguna da gaur eta Askatasunak agerraldiak deitu ditu 19:00etan*

Gaur torturaren kontrako eguna da eta kontzentrazioak egingo dira ibarrean. Bestalde, Lopez Aguilarrek esandakoei kasu egin ezkero, ibarreko hainbat presoren kontra ere neurriak hartu ditzake justizia ministroak. 30 urteko espetxe zigorra duten debagoiendarretatik bostek 3/4ak beteta dituzte eta besteak datozen urteetan beteko dituzte. 2-3

**AGERRALDIAK**
**Ibarreko hiru herritan egingo dira gaur torturaren kontrako kale agerraldiak, Askatasunak deituta**

**3/4AK BETETA DITUZTE**
**Debagoieneko bost presok kalean beharko lukete dagoeneko, zigorraren 3/4ak beteta dituztelako**



JOSETXO ARANTZABAL

### 18/98 EPAIKETAREN KONTRAKO ALDARRIKAPENA

Gaur ekingo diote berriz 18/98 sumarioan auziperatutakoak epaitzeari. Horixe salatzeko eta prozesua eten dezatela eskatzeko, agerraldia egin zuten atzo Bergarako epaitegiaren aurrean Debagoieneko 18/98 plataformako kideek eta hainbat herritarrek. Bilbon zapatuan egingo den manifestaziorako dei ere egin zuten. 5


PABLO CUEVA

Barikuan jaso zuen Ezpeletak (urdinez) oroigarria Mendi Federazioaren X. galan.

## Mendi Federazioak saria eman dio

*Iaz lortutako emaitza onengatik saritu dute Zuhaitz Ezpeleta* 17

## Eguaztenean erabakiko du Oñatiko EAJk alkate berria izateko hautagaia 8

## Etxeko lanak errazteko asmakizunak egin dituzte Fagorrek eta Ikerlanek 6

OPARI

90€ ko erostetarengatik, DOAN zerbitzatzeko saskidun 3 azpil. Ontzi-garbigailu, mikrouhin-labe eta laberako erabilgarriak
Eskaintza baliagarria 2006ko otsailaren 18ra arte
SUPER AMARA
BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 P Bezeroentzako Aparkalekua

# GEUREAN

• Hamaika ama hasi dira umeekin euskaraz jarduteko Bidelagun egitasmoan | 4
• Erakusketa batekin hasiko da gaur Oñatiko Natura Astea | 6



Haritz Bikuñarekin jardun dugu Marokora egindako bidaiaz egin duten liburuaren gainean | 7



**KARTZELA ZIGORREN AUZIA** | DEBAGOIENEKO HAMALAU EUSKAL PRESOK 30 URTETIK GORAKO ESPETXE ZIGORRAK DITUZTE

# Ibarreko bost euskal presok zigorraren 3/4ak beteta dituzte

*Debagoieneko hainbat presoren egoera ere aldatu egingo litzateke Lopez Aguilar justizia ministroak egin zituen adierazpenak betez gero*




JOSETXO ARANTZABAL

Torturaren kontrako giza katea egin zuen Askatasunak Arrasaten joan zen egubakoitzean.

Marijo Deogracias

Debagoieneko euskal preso politikoetatik hamalauk 30 urtetik gorako kartzela zigorrak dituzte. Espainiako Justizia Ministro Juan Fernando Lopez Aguilarrek joan zen astean egindako adierazpenei jaramon egin ezkero, euren kontrako inputazioak eraikitzeko arriskua legoke. Izan ere, eta Unai Paroten kontra egin duten moduan, aske geratzekotan diren beste presoei ere beste auzibide batzuk irekitzen saiatuko dira.

Josu Arkauz, Jesus Mari Zabarte, Jon Agirre, Jose Gabriel Urizar, Jose Ignazio Gaztañaga, Josu Uribetxebarria, Kepa Urra, Xabin Usandizaga, Xabier Ugarte, Joseba Arregi, Alberto Plazaola, Luis Mari Azkargorta, Joxe Migel Gaztelu eta Joseba Erostegi presoek 30 urtetik gorako espetxe zigorrak dituzte. Legea aplikatuz gero, 30 horietatik 20 urteko kartzela zigorra beteko dute guztiek. Preso hauetako zazpi 1973ko kode penalarekin auziperatuta daude: Arkauz, Zabarte, Agirre, Urizar, Gaztañaga, Urra, Arregi eta Plazaola. Eta 1979ko erreforman jasota dator, gehienez 30 urteko espetxe zigorra beteko dutela.

**GEHIENEZ 30 URTEKO ESPETXE ZIGORRA**

Preso baten kontra hainbat espetxe zigor ezarrita ere, kode penalak hainbat neurri aurreikusten ditu betiko espetxe zigorra gerta ez dadin; izan ere, kasu askotan, bizitza bera baino askoz ere luzeagoa den espetxe zigorrak ezartzen dira. Hortaz, betiko kartzela zigorraren kontra, gehienez, kartzela zigorra 20 urtekoa izango dela dio kode penalak, salbuespenak salbuespen; hau da, 25 urtekoa izango da bi zigor izanez gero, eta horietako bat 20 urtetik gorakoa bada; 30 urtekoa bi delitu edo gehiago eginez gero, eta horietako bat 20 urteko zigorra baino gehiagokoa denean; 40 urtekoa terrorismoarekin lotutako bi delitu edo gehiagorengatik. Zigor horiek praktikan gutxiago izan daitezke.

**GAUR TORTURAREN KONTRAKO EGUNA**

Gaur, astelehena, Torturaren Kontrako eguna dela eta, mobilizazioak deitu ditu Askatasunak ibarreko hainbat herritan. Hala, elkarretaratzeak egingo dituzte Aretxabaletan, Bergaran eta Oñatin. Aretxabaletan 19:00etan egingo dute eta ikus-entzunezkoa ere emango dute tortura testigantzekin. Bergaran, 19:00etan egin dute hitzordua, plazan, eta, Oñatin, biribilguneetan egingo dituzte elkarretaratzeok.

**Elkarretaratzeak egingo dira gaur, Torturaren Kontrako egunean**

**Arkauz, Zabarte, Agirre, Urizar eta Gaztañaga presoek zigor osoa bete dute dagoeneko**

**30 urtetik gorako espetxe zigorra duten debagoiendarrak**

| | IZEN ABIZENAK | ESPETXEA | ATXILOKETA DATA |
|---|---|---|---|
| **ARRASATE** | | | |
| | Josu Arkauz | Alacant | 1991 |
| | Jesus Mari Zabarte | Jaen | 1984/06/25 |
| | Jon Agirre | Langraitz | 1981/05/11 |
| | Jose Gabriel Urizar | Jaen | 1985/02/26 |
| | Jose Ignazio Gaztañaga | Granada | 1988/03/28 |
| | Josu Uribetxebarria | Langraitz | 1997/07/01 |
| **ARETXABALETA** | | | |
| | Kepa Urra | Puerto Leal | 1989/10/29 |
| **ANTZUOLA** | | | |
| | Joseba Erostegi | Herrera de la Mancha | 1997/07/01 |
| **BERGARA** | | | |
| | Luis Mari Azkargorta | Zuera | 2003/11/27 |
| | Joxe Migel Gaztelu | Topas | 1997/07/01 |
| **OÑATI** | | | |
| | Xabin Usandizaga | Badajoz | 1997/07/04 |
| | Joseba Arregi | Jaen | 1992/03/29 |
| | Xabier Ugarte | Alama | 1992/03/29 |

EUSKAL PRESO POLITIKOEN ZIGORRAK

**ENRIKE LETONA** | ASKATASUNAKO KIDEA ETA PRESO OHIA

# “Positiboa da presoek prozesuan parte hartzea”

Marijo Deogracias

**2003ko maiatzaren 16an askatu zuten. 16 urte egin zituen espetxean. Harrezkero, hiru epaiketa egin dizkiote eta beste baten zain dago. Epaiak errekurrita daude. Irmoak direnean hartuko dute erabakia. Gainera 25 bat aldiz joan behar izan du Auzitegi Nazionalera. Eguenean hitzaldia egingo du Aretxabaletan, Loramendi elkarteak antolatuta. Euskal Preso politikoen kolektiboaz eta haien egoeraz arituko da Enrike.**



M.D.

**Euskal presoen egoeraren ikuspegi historikoa egingo ei duzu berbaldian.**

Amnistiatik hona jasandako aldaketak aipatu nahiko nituzke. Azken baten, presoen estatus politikoa onartu den arren, kolektiboko kide izateak ez die onurarik ekarri presoei; alderdi negatibo guztiak jasan behar izaten dituzte: sakabanaketa, isolamendua, zigorra bere osotasunean betetzea, jipoiak, tortura…

**Aspaldian esaten da egoera politikoa aldatu dela, edo horretarako pausoak ematen ari direla.**

Pausoak ematen ari direla bai, baina esaterako, presoen kolektiboak ere prozesu horretan parte hartzeko eskubide osoa dauka eta ez zaio eskaintzen aukera hori. Balizko bake prozesu honetan irekita dagoen elkarrizketa prozesuan parte hartu beharko lukete. Euskal Preso politikoen kolektiboak eragin handia du gizartean, oso esparru zabalean, gainera. Nik uste dut erabat positiboa dela eurek ere parte hartu ahal izatea eta prozesuari ekarpenak egitea.

**Legalitateari begira, kalean beharko lukete Arrasateko bost presok.**

Legea bete egin behar dela diote epaileek, baina zer ulertzen dute eurek legea betetze horrekin? Espetxe legearen filosofia bergizarteratzea bada (guk, jakina, inoiz ez dugu izan arazo hori herriaren baitan egon garelako), agerikoa da ez dutela legea betetzen. Hasteko, zigorrak berrikusten zituzten Zaintza Epaitegiak Audientzia Nazionalera eraman dituzte politikoki guztiz kontrolatzeko, espetxeen artean kriterio desberdinak erabiltzen zirelako aitzakiarekin. Baina gero eurak dira legea betetzen ez dutenak.

Esaterako, erredentzio arruntaren kasuan, hau da, espetxean egindako bi urteko zigorrari urtebeteko zigorra kentzea, ez dute betetzen, eta espetxean zauden bitartean ikasten aritzeagatik ez dute zigorrik gutxitzen. Orain ikasteko eskubiderik ere ez dago.

> **“Euskal presoen kolektiboak eragin handia du gizartean”**
>
> **Eguenean, 19:00etan, presoen estatus politikoaz arituko da Aretxabaletan**

**Justizia ministroak esan du Euskal presoak ez irteteko “inputazio berriak eraikiko” dituztela. Zer diozu horretaz?**

Pentsaezina da justizia ministro batek horrelako adierazpenak egitea. Errepublika bananeroetan ere ez dira horrelakoak gertatzen. Nire ustez PPri, aurrera daraman kanpaina mediatikoa dela medio, nolabait aurre egiteagatik egindako adierazpenak dira. Hala ere, erabat lekuz kanpo daudela iruditzen zait, eta gehiago, duen karguagatik.

Frantzian, adibidez, bizitza osorako zigorra dago, baina 15 eta 20 urte artean egiten ohi ditu kartzelan zigor hori duenak. Hemen legeak dio gehienez 40 urtez egon zaitezkeela preso (kode zaharrak 30 urte) eta zigor horren hiru laurdenak bete ostean, aske geratuko zarela. Erredentzioak jasotzeko aukerak daude, baina gaur egun, Zaintza Epailea Audientzia Nazionalean egonda, ez dira aplikatzen. Garbi dagoena da Iñaki de Juana edo Unai Paroten kasuan, delituak asmatu egiten dituztela. Lehenik erredentzioa kentzen saiatu ziren eta horrek funtzionatu ez duenean asmatu egin behar… Eta justizia ministroak dio bide hori jarraituko dutela… Adierazpen horiekin jokabidea garbi gelditzen da.

## Espetxean jarraitzen dute zigorraren 3/4ak bete dituzten arren

M.D.

Badira, legearen kontra oraindik kartzelan diren debagoiendarrak. Bost dira guztira eta dagoeneko zigorraren 3/4ak bete dituztenez aske egon beharko lukete. Arrasatekoak dira bostak: Arkauz, Zabarte, Agirre, Urizar eta Gaztañaga. Zigor politikarako administrazioak preso baten kontrako kondena guztiak pilatu egiten ditu eta batze horretatik kalkulatzen du zigorraren 3/4ekoa. Gero, espetxeetako zaintzarako epaileei dagokie askatasuna emateko ahalmena.



**JON AGIRRE** | ARRASATE

- 1981eko maiatzaren 11n atxilotu zuten.
- Langraitzen dago.
- 70 urteko espetxe zigorra.



**JESUS MARI ZABARTE** | ARRASATE

- 1984ko ekainaren 25etik espetxean.
- Jaengo espetxean dago.
- 800 urteko espetxe zigorra.



**JOSE GABRIEL URIZAR** | ARRASATE

- 1985eko otsailaren 26an atxilotua.
- Jaengo espetxean dago.
- 200 urteko espetxe zigorra.



**JOSE IGNAZIO GAZTAÑAGA** | ARRASATE

- 1988ko martxoaren 28tik espetxean.
- Granadako kartzelan dago espetxeratuta.



**JOSU ARKAUZ** | ARRASATE

- 1991tik espetxean.
- Alacanteko espetxean dago.
- 94 urteko espetxe zigorra dauka.



Merkatuko lehen markak
Mota askotako estiloak
Gremioen koordinazioa

PROIEKTUA - DEKORAZIOA
Ipar project, s.l.
SUKALDEAK-BAINUAK-ZERAMIKA

Telleria 23, D5 pabilioia.
**Labegaraieta Industrialdea BERGARA.**
Tel.: 943 76 98 30. Faxa: 943 76 52 44.
www.iparproject.com





**BIDELAGUN** | ETXEKO TXIKIENEKIN EUSKARAZ ARITZEKO ESKOLAN DABILTZA ESKORIATZAN

# Hamaika ama ari dira Bidelagun egitasmoan Eskoriatzan

*Eskoriatzarrak dira guztiak, eta euren seme-alabekin euskaraz komunikatu nahi dutelako ari dira euskara eskolak hartzen. Hogei orduko saioa egingo dute*

Marijo Deogracias

Joan zen astean ekin zioten Bidelagun egitasmoari Eskoriatzan. Hamaika amak eman dute izena eta hogei orduko ikastaroa egingo dute "nork bere burua aurkezten ikasteko, umeei instrukzioak ematen ikasteko eta hiztegia lantzeko", Idoia Jausoro irakasleak dioenez. Seme-alabekin ipuinak, abestiak eta jokoak euskaraz egin ahal izatea izango du helburu egitasmoak. Izan ere, "euskararen familia bidezko transmisioari ekiteko indarra bi gune nagusitan egin behar da: gazteengan eta familia osatu berriengan; eta, beraz, gurasoak, haurrak, zaindariak, haurtzaindegiak… sentiberatzeko ekintzak behar dira", adierazi digute Eskoriatzako euskara zerbitzutik.

**UMEEKIN ELKAR ULERTZEKO**

Horrela ekin zioten Bidelagun egitasmoari, eta herriko hamaika ama hasi dira martitzen eta eguenetan eskolara joaten. "Seme-alabekin oinarrizko komunikazioa lortu nahi dute, hori da euren lehentasuna eta horretara moldatu dugu ikasketa programa", azaldu digu Jausorok. Ikasleek adierazi digutenez, "umeekin gutxieneko ulermen bat lortu nahi dugu, eta ipuinak kontatzeko modu egokia ikasi". Izena ematen duten guztiak emakumezkoak dira eta adin txikikoen amak. Azaldu digutenez, euretako batzuk euskaltegian egonak dira, baina ez dute ordutegi aldetik aukera askorik izaten. Gainera, herrian bertan horretarako aukerarik ez dutenez, gogo gehiagorekin hasi ei dute Bidelagun ekimena.

**KOMUNIKAZIOAN LAGUNDU**

Eskoriatzan ari den emakume taldearekin izan ginen joan zen eguenean eta guztiak bat etorri ziren esatean "umeekin komunikatzeko" egin dutela Bidelagunen aldeko aukera. Adin txikiko umeak dituzte guztiek eta ezinbestekoa ikusten dute euren seme-alabekin euskaraz izatea gutxieneko hartu-emana. "Ipuinak era egokian kontatzea" edo "auzolagunari atea jo behar ez izatea" nahikoa arrazoi direla diote.

**Eskolak martitzen eta eguenetan izaten dituzte, 14:30-16:00 kultura etxean**



M.D.

Eskoriatzako bidelagun egitasmoan ari den emakume taldea, joan zen egunean.

**• ZERGATIK BIDELAGUN?**



**LUZ Mª IGNACIO** |

"Txikiekin hobeto moldatzea nahiko nuke eta elkarri ondo ulertzea, besterik ezean elkarrizketa laburretan", esan digu Luz Mariak.



**ANA ISABEL BARBERO ETA LOLI JORGE** |

Ana Isabelek dioenez, "etxekoek eskatu didate euskara ikasteko. Atsegin dute nik horrelakoetan parte hartzea eta neuri ere gustatzen zait". Lolik, berriz, "bizilagunari ate joka ez aritzeko" egiten duela dio.



**ARANTXA RUIZ ETA AMAIA SUEIRO** |

"Idurreri –lau urte ditu– ipuinak ondo kontatzea nahiko nuke", esan zigun Amaiak, "tonu egokia erabili ezean ez dit ulertzen". "Umeagatik erabaki dut etortzea," esan zigun Arantxak.

• URETAKO JOLAS PARKEA, ESKORIATZAN

**UME GUTXI ANIMATU ZEN ATZOKO EGUNEAN IGERILEKURA**

Atzo zuten berriz ere hitzordua igerilekuan Eskoriatzako gaztetxoek, uretako jolas parkean. Atzo, baina, aurrekoetan baino jende gutxiago animatu zen parte hartzera. Lehenengo orduan izan ziren neskato-mutikorik gehien, 8-12 urte bitartekoak. Bigarren orduan, berriz, 17:00etatik 18:00etara, ume bakarra agertu zen. Hain justu ere, 1 eta 4 urte bitarteko umeendako egokitu zuten ordutegi hori, 19:00etatik 20:00etara berandutxo zela esan zutelako gurasoek, baina atzo adin horretako ume bakarra izan zen ordutegi berrian kiroldegiko jolas parkean.



JOSETXO ARANTZABAL

• LEONARDO DA VINCI PROGRAMA



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

**POLONIAKO 10 IKASLE ETORRI DIRA PRAKTIKAK EGITERA**

Leonardo Da Vinci Europako programaren barruan eta Bergarako Miguel Altuna LHko eskolaren bitartez, Poloniako 10 ikasle eta irakasle bat etorri dira gurera. Kamien herriko Secondary School of Elecroinics-eko ikasleak dira eta Debagoieneko eta Debabarreneko lantegietan praktikak egiteko etorri dira. Otsailaren 13tik martxoaren 3ra bitartean egingo dituzte praktikok. Bien bitartean, Bergarako HHIn gaztelania eskolak jasotzen ari dira.

**18/98 SUMARIOA** | ELKARTASUN DEIA ZABALDU ZUEN INPLIKATUEN ALDEKO DEBAGOIENEKO PLATAFORMAK

# Beste behin, makrosumarioaren prozesua eteteko eskaera egin dute

*Epaiketarekin gaur jarraituko dutela ikusita, sumarioak dakartzan kalteak salatu zituzten plataformakoek atzo, eta zapatuan Bilbon egingo duten manifestaziora batzeko eskatu zuten*

Jon Berezibar

Agerraldia egin zuen 18/98 sumarioan auziperatutakoen aldeko Debagoieneko plataformak atzo, Bergarako epaitegiaren aurrean. Beste behin, sumarioaren hutsak salatu eta auziperatuenganako elkartasuna agertu zuten bertan bildutakoek. Horrela, epaiketa eteteko eskaera berretsi zuten agerraldian, eta datorren zapatuan Bilbon egingo den manifestaziora batzeko deia egin zuten, bonolaguntzak eskuratzeko eskaerarekin batera.

**"Inplikatuei eta familiei eragiten zaien kaltea ikaragarria da"**

**"Bakegintzarako prozesua abiatu ez dadin ahaleginak egiten ari dira Gobernutik"**

"Egondako etenaldiaren ostean, gaur epaiketarekin jarraituko dutela ikusita, egerraldia egiteko unea zela ikusi dugu plataformakook", adierazi zuen Xabier Zubizarretak. Epaiketak inplikatuei eragiten dizkien kalteen barruan, dakarren gastu ekonomiko itzela azpimarratu zuen Maite Aristegi bozeramaileak. Auziak 200 lagun inplikatzen ditu, eta horiek kaltetzeaz gain, hainbat enpresa eta familiari zuzenean eragiten diela gehitu zuen EHNEko lehendakari ohiak. Amaitzeko, gogorarazi gura izan zuen oraindik ere *Egunkaria*ren eta Udabiltzaren zatiak daudela aztertzeko.



JOSETXO ARANTZABAL

Bergarako epaitegi aurrean egin zuten agerraldia Debagoieneko plataformako kideek.

**ZAPATUAN BILBORA**

"Epaiketak, hasieran bezala, bere horretan jarraitzen duela ikusita, datorren zapatuko manifestaldira gehitzeko deia ere zabaldu gura dugu", esan zuen Zubizarretak. Hilaren 18an izango da manifestazioa Bilbon, hain zuzen ere, "epaiketaren kontra protestatu eta prozesua etetea eskatzeko". Egungo egoera delaeta, garrantzitsutzat jo zuen Zubizarretak zapatuko hitzordua, "Espainiako Gobernuan ez direlako aldatzeko zeinu garbiak ikusten eta betiko jarrerari eusten diotelako".

Amaitzeko, gehitu gura izan zuen Xabier Zubizarretak balizko bake prozesuak ekarri dezakeen egoera aldaketaren inguruan "diferentzia gutxi" ikusten duela oro har.

Haren esanen arabera, "Gobernutik batzuek esperantzarako arrazoiak badaudela esaten dute, baina praktikan horrelakorik ez dela" ikusten du. Alderantziz, Zubizarretak agertu zuenez, "ikusten gabiltzana da Estatu barruko ordezkaririk esanguratsuenak akordiorako eta bakegintzarako prozesua abiatu ez dadin ahalegin guztiak egiten ari direla". Sumarioari buruz gauza bera pentsatzen du Zubizarretak, "Garzonen tesiak eta ideiak jarraitzen dituztela epaileek, beste barik".

Aipatutako salaketa agerian uzteko eta inplikatuei elkartasuna adierazteko, nahiz galera ekonomikoei aurre egiten laguntzeko, bonolaguntzak eskuragarri daudela gogorarazi zuten atzo plataformako kideek.

# Arrasatera joan da Elgetako billar txapelketako saria

*Zazpi lehiakidek jardun dute eta Xabier Zeziagak hartu die aurre gainerakoei*

Monika Belastegi

Xabier Zeziaga arrasatearrak irabazi du Elgetako Espaloia antzokian asteburuan jokatu den billar txapelketako lehenengo saria (Espaloiko ikuskizun baterako bi lagunendako sarrerak eta afaria).



JOSETXO ARANTZABAL

Zazpi lagunek hartu dute parte Espaloian egindako lehengo billar txapelketan.

Zazpi lagunek hartu dute parte egubakoitz eta zapatu bitartean jokatu den lehiaketan –Arrasateko eta Elgetako hiruk eta Eibarko batek–, eta antolatzaileen esanetan, parte-hartzaile kopurua oso altua izan ez bada ere, oso gustura geratu dira emaitzarekin. Hori horrela, litekeena da datorren urtean jarraipena izatea billar txapelketak Elgetan.

Bigarren sailkatu da Ricardo Anillategi eibartarra (bi lagunendako afaria irabazi du) eta hirugarrena izan da, berriz, Gaizka Bolinaga Elgetarra.

## EAJ-EA gezurretan ari dela salatu du Aralarrek

Marijo Deogracias

"Agerian geratu da EAJ-EAkoek gezurretan dihardutela" salatu du Aralarrek. Prentsara bideratutako ohar baten bidez "EAJ-EAri eskatzen diogu bete ditzala hartutako konpromisoak eta Torrealdean babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lanak lehenbailehen has daitezela" eskatu du Elgetako Aralarrek.

Torrealdeko babestutako etxeak egiten hastear zirela adierazi zuen iaz Joseba Muxikak eta "ordutik urtebete pasatu da eta Torrealdean lurrik ez da mugitu. Agerian geratzen da EAJ-EAkoak ez direla gestore onak" diote Aralarretik.

Muxikak adierazi digunez, "Torrealdeko proiektuaren barruan hiru proiektu jasotzen dira: etxebizitza libreen, urbanizazioaren eta babestutako etxeen proiektuaren exekuzioak. Bi kontratista ari dira lan horietan eta hiru proiektuak gauzatzeko errazena batera egitea da, baina ez da posible izan. Hala ere, 18-20 hilabetetan eraikita eta giltzak emanda egongo dira".

Bi bloketan 20 etxebizitza egingo dira eta 60 eskari egon dira; 43 elgetarrenak.

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
K21
Arotz lanak orokorrean
•
Horma armairuak
•
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04



JOSETXO ARANTZABAL

Hogeita hamar bat neska-mutiko batu ziren inaugurazio jaian. Patxi Basauri alkatea ere han izan zen.

# Elgetako gazteek badute aurrerantzean aisiagunea

*Zapatuan inauguratu zuten 11 eta 16 urte bitarteko gazteendako Gaztelekua Ozkarbiren azken solairuan*

Monika Belastegi

Ikusminak eraginda 30 bat neska-mutiko hurbildu ziren zapatuan (1990etik 1995era urte bitartean jaiotakoak, biak barne) Gazteleku berria ezagutzera. Plazan dago, Ozkarbi elkartearen azkeneko solairuan, eta 11 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoendako asteburuetarako aisiagune izateko sortu da.

Zapatuetan 16:00etatik 22:00etara egongo da zabalik, eta domeka eta jaiegunetan, berriz, 16:00etatik 21:00etara zabalduko dute. Bestalde, maiatzaren azkeneko asteburura arte egongo da zabalik Gaztelekua eta izena eman nahi duten gazteek bertara joan baino ez dute.

**Zapatuetan 16:00-22:00etara eta jaiegunetan 16:00-21:00etara egongo da zabalik**

### AISIAGUNE BAINO ZERBAIT GEHIAGO

Merienda goxoarekin inauguratu zuten zapatuan Gaztelekua eta hurbildutako gazteekin batera egon ziren Patxi Basauri alkatea eta Izaskun Larrea Kultura, Euskara eta Gazteria zinegotzia. Azken horrek esandakoaren arabera, adin horretako gazteek egoteko leku bat izateaz gain, euren abilezia eta nahiak garatzeko lekua ere izango da Gaztelekua. Horretarako tailer, ikastaro eta antzekoak antolatuko dituzte eta han izango da horretan guztian laguntzeko Igor Letona zerbitzuaren arduraduna.

# Etxeko lanak errazteko asmakizunak dituzte Ikerlanek eta Fagorrek

*Etxeko tresnak koordinatuko dituzte ahotsarekin, mugimenduarekin edo irudi bidez*

A.G.

Bi dira proiektuak eta Holandan aurkeztu dituzte Ikerlanek eta Fagor Etxetresna elektrikoek. AMEC izeneko proiektuaren barruan egindako ikerketatik sortu dituzte biak eta etxeko tresna adimentsuak izateko balio dute egindako lanek. Hau da, etxeko tresna guztiak koordinatzeko balioko dute eta ahotsaren bitartez, mugimenduarekin, keinuak eginez edo irudi bitartez jarriko dira martxan.

### ELKARLANEAN EGINDAKO PROIEKTUAK

Fagor eta Ikerlan enpresekin batera, Holanda eta Turkiako ikerketa zentroak ere ari dira AMEC proiektuan. Hogeita lau hilabetetan garatzeko egitasmoan ari dira guztiak eta 3 milioi euroko aurrekontuarekin.

AMEC proiektuaren helburua etorkizuneko etxeetako bizimoduan lagunduko duten produktu eta zerbitzuak diseinatzea da.

# Arrasateko EBk dio Aralarrek gauza bat esan eta bestea egiten duela

*EB udal gobernutik kanpo dagoenetik, bi alderdien arteko harremanak zaildu egin dira erabat*

A.G.

Arrasateko Ezker Batuak Aralarrek egindako adierazpenen kontra jo du. EBk prentsa oharrean adierazi duenez, "etxebizitza politikan dagoen desadostasuna ez da bakarrik Zerrajerako proiektuarekin izan. Zabalgunen, esaterako, babestutako etxeen %28 baino ez da bultzatu eta Uribarriko ekimen pribatuko proiektuan %22. Kasu bietan erakutsi egin genuen, txosten bidez, etxeen %50 gutxienez babestutakoak izan zitezkeela. Orduan ere ez genuen Aralarren laguntza jaso. Aralarrek dioenez, Jaurlaritzaren Etxebizitza Sailaren proiektua bultzatu nahi izan dugu, baina nola egingo dugu hori gutxiengoa izanda?".

Ezker Batuak adierazi duenez, Arrasateko Udalak La Caixarekin egindako etxebizitza proiektuaren kontura, "ezin dugu esan interes publikorako proposamen onena denik, Aralarrek egiten duen moduan, herritarrak –eta gu geu– engainatuko genituzkeelako".

# Erakusketa batekin hasiko da gaur Oñatiko Natura Astea

*Hamar urte egin ditu dagoeneko naturarekiko kontzientziazioa zabaltzen*

M. B.

Gaur hasiko da Natura Astea Oñatin. Erakusketak, hitzaldiak, ikus-entzunezkoak, Zuhaitz azoka eta Zuhaitz eguna dira Natur Eskolak antolatutako egitarauaren oinarri nagusia.

*Goroldioak: uraren xarma* izeneko erakusketak irekiko du astea gaur, eta martxoaren 9ra arte egongo da ikusgai Natur Eskolan. Horrekin batera, bihar, martitzena, *Ugatza, saia eta saizuria* izeneko erakusketa zabalduko dute kultura etxean. Argazki erakusketa hori hilaren 27ra arte egongo da ikusgai.

Zine emanaldiak ere egongo da Natura Astearen barruan. Eguenean, hilak 16, *El Cielo gira* filma emango dute eta 23an, berriz, *La pesadilla de Darwin*. Biak ala biak, 20:00etan, kultura etxean.

Hiru hitzaldi ere egongo dira: hilaren 20an, *Baso eta zuhaitz zaharren garrantziaz*; hilaren 21ean, *Korredore naturalak, naturguneen konektibitatea* gaiaz arituko dira, eta 22an, *Ugatza: arrano hezurjaleaz*.

Zuhaitz azoka hilaren 19an egingo dute, Foruen plazan, ohi bezala, eta sei mintegitako ordezkariek euren zuhaitz eta zuhaixkak erakutsiko dituzte 09:00etatik 13:30era bitartean. Zuhaitz egunari dagokionez, otsailaren 26an egingo dute. Aurten Aloña eta Belar inguruetan landatuko dituzte zuhaitzak, 200 bat.



ARTXIBOA

Zuhaitz azoka hilaren 19an egingo dute, plazan, 09:00etatik 13:30era.

Liburu bat aurkeztu zuten eguenean Bergarako Aspacen. *Mar de Arena* du izena eta 1995. urtean, bost lagunek Marokora egindako bidaia kontatzen du. Bidaia egindako lagunetatik hiru gutxituak dira, garun-perlesia dute; eta euretako bat, Haritz Bikuña, gurpildun aulkian dago. Baina esaerak dioen bezala, gogozko lekuan aldaparik ez, eta eurak dira horren froga garbia. Bidaiaren bultzatzaile nagusia Haritz bera izan zen eta harekin egon gara bizitako esperientziaz jarduteko.

**HARITZ BIKUÑA** | 'MAR DE ARENA' LIBURUKO PROTAGONISTETAKO BAT

# "Ni ez naiz gutxitua sentitzen; guztiok ditugu gure aukerak, baita bidaiatzeko ere"

Monika Belastegi

**Abenturazalea zara, hortaz. Zuk esandako hitzak dira eguenean, liburua aurkezteko garaian Bergaran.**

Bai. Asko gustatzen zaizkit abenturak. Arriskua asko gustatzen zait eta baita tokiak ezagutzea ere. Mundu guztiko pertsonak ezagutzea ere oso garrantzitsua iruditzen zait, eta baita tea konpartitzea ere.

**Nola otu zitzaizun Marokora bidaia egitea? Marokoko zerk erakartzen zintuen?**

Iñaki Bidegain medikuarekin egon nintzen, eta kontatu zidan bera eta garun paralisia duten bi pertsona, lehenago Errusian egonak zirela. Hori esan zidanean bidaiatzeko gogoa sartu zitzaidan. Hala, Iñaki Bergarara etorri eta nik ere beraiekin bidaia bat egiteko gogoa nuela esan nion, eta Iñakik baietz esan zidan.

Bestalde, Maroko aukeratzea kasualitatea izan zen.

**Joan aurreko prestaketak nolakoak izan ziren?**

Hiru urtez jardun genuen dirua gordetzen bidaiarako, eta denbora horretan zehar ni izan nintzen diruzaina.

Bestalde, ibilbidea zehazteko batzar bat egin genuen bidaian joango ginen lagunok eta gidak plan bat proposatu zigun. Plan hura hauxe zen: Atlas mendi gainera igotzea eta basamortura joatea.

Eraman genituen gauzen artean komun eroangarri bat zegoen, beharrezkoa baita.

**Joan aurretik aurkitu ahal zenituen oztopoetan pentsatu zenuen?**

Asko pentsatu nuen bidaian joan aurretik. Baina ez nengoen oso arduratuta. Izan ere, nik uste nuen Atlasera igotzea San Martzialera edota goiko trenbidera igotzea moduko zerbait izango zela.

Lagunek eta Aspaceko monitoreek ia zoratuta nengoen galdetzen zidaten, eta ia haraino joan ahal izango nintzen ere esaten zidaten.

**Gurasoek ere izango zuten ardura pixka bat.**

Gurasoek lagunek egindako galdera berdinak egin zizkidaten. Baina, bestalde, asko animatu ninduten bidaiara joateko, ni diruzaina izateak ere animatu zituen beraiek.

Gainera, gurasoek inoiz ez didate nire asmoak betetzeko ezezkorik ematen edota trabarik jartzen. Asko animatu eta lagundu izan naute beti.

> **"Atlasera mando gainean igo nintzen, eta oreka mantentzea gehien kostatu zaitzaidan gauzetako bat da"**

> **"Bidaia hau bezalako gauzak egiteko oso garrantzitsua da ingurukoek animoak ematea"**

**Gurpildun aulkian ibiltzea ez da erraza izango, bada, Atlas mendietan eta basamortuan?**

Bai egia da, kosta egiten da, baina ni eraman egiten ninduten. Atlasera igotzen eta jaisten lau egun eman genituen. Bidaia mando gainean egin genuen hiruk. Eta beste hiruk oinez egin zuten.

**Mando gainean igotzea ere ez zen oso erraza izango.**

Ez, Atlas puntaraino mandoan igotzea ez zen erraza izan; ekarri zituen zailtasunak: gorputzaren oreka mantentzea, esaterako. Niri, adibidez, komuna jarri zidaten bizkarra sostengatzeko. Hasieran, bi mando alokatu genituen, bat niretzat eta beste bat Jose Manuelentzat; gero, beste bat alokatu genuen karga eramateko. Baina azkenean, Uria joan zen azken mando haren gainean, ekipaje guztiarekin batera. Atlaserako txango horretan gelditzeko egin genituen hainbat herritan lo egiteko, atseden hartzeko eta jatorduak egiteko.

Baina, bueno, badaude tokiak non area gogorra den eta toki haietan errazago ibili nintzen gurpildun aulkian.

**Bestelako zailtasunik aurkitu zenuen?**

Lehen esan bezala, mando gainean ibiltzean gorputzaren oreka mantentzea kostatu zitzaidan gehien. Atlas-era igotzen ari ginela mando bat labaindu eta Joxe Manuel erori egin zen. Mandozain batek labanarekin moztu behar izan zuen Jose Manuel eusten zuen kordela, mandoa altxatu ahal izateko.

**Zer da gehien gustatu zitzaizuna? Eta gutxien?**

Gehien gustatu zaidana Atlas mendia izan da eta Marrakesh ere oso polita da. Gauean bertako plazan mugimendu handia egoten da. Bestalde, basamortua ere asko gustatu zitzaidan. Gogo handia neukan basamortua ezagutzeko.




MONIKA BELASTEGI

Bergarako Aspacen egon ginen Haritz Bikuñarekin.

**Zer esango zenioke zu bezala gutxituta dagoen jendeari eta halako edo antzeko bidaia egin nahi duenari?**

Anima daitezela, guztiok ditugu gure aukerak. Ni ez naiz gutxitua sentitzen. Gainera, bidaiatzeko ez da oztopo handirik egoten, besteek guri jartzen dizkigutenak izan ezik; gogoa da behar dena. Bestalde, garrantzitsua da bidaia hauek egitean jendearen laguntza izatea. Honekin batera, oso-oso garrantzitsua da ingurukoek gu animatzea.

**Zergatik batu duzue zuen bidaia liburu batean?**

Interesgarria iruditu zitzaigun jendeak esperientzia hau ezagutzea. Iñakik lehenago Errusiara egindako beste bidaia baten esperientzia kontatuz liburu bat idatzi zuen, eta nik gurearen inguruan idatz zezan komentatu nion; eta egin zuen.

Liburua irakurri duten pertsonek asko gustatu zaiela esan didate, eta liburuaren irakurketa esperientzia ona izan dela ere esan didate.

**Marokora joan aurretik bidaiatutako pertsona zinen, ala lehenengo bidaia izan zen?**

Aurretik Saloun, Parisen, Malagan, Sevillan, Palma de Mallorcan, eta beste toki batzuetan ere egonda nago, baina inoiz ez dut halako neurriko bidaiarik egin. Lehenengo aldia izan da, hortaz.

**Marokora joan eta gero Patagonian ere izan zinen.**

Marokon egon eta bost urte geroago joan ginen Patagoniara. Esperientzia interesgarria izan zen hura ere. Bost urte beranduago Alaskara joatekotan ere egon nintzen, baina beste pertsona bati utzi nion nire ordez joaten.

**Eta hurrengo bidaia dagoneko hasi zarete antolatzen?**

Ez, oraindik ez. Hurrengo bidaia oraindik pentsatzeko daukagu.

## Bost lagun harezko itsasoan barrena

***Mar de Arena*** **du izena bost lagunok Marokora egindako bidaiaren gaineko liburuak. Iñaki Bidegain –bigarrena ezkerretik– Aspaceko medikuak idatzi du eta 165 orritan barrena, Uriarekin, Haritzekin, *Budy*-rekin eta Javierrekin Marokon igarotako egunak kontatzen ditu. Euretako hiruk garun paralisia dute. Baina gogoarekin, ingurukoen animoarekin eta gauzak ondo antolatuz gero, halako bidaiak egin daitezkeela argi erakutsi dute.**

**Liburua salgai dago Bergarako Aspaceren egoitzetan interesa duten guztiendako –Ibaiondoko eta Oxirondoko egoitzetan, hain justu ere–.**



## Albiste izango da

ELGETA | HERRITARREK PARTE HARTZEA NAHI DUTE

### Kirola sustatzeko Egoki izeneko taldea aurkeztuko dute etzi

Herrian kirola bultzatzeko eta kirol jarduerak koordinatzeko taldea aurkeztuko dute eguaztenean. Egoki du izena (Elgetan Gozatu Kirolaz) eta dagoeneko antolatu dituzte hainbat jardue-ra. Ekainean hasi ziren lanean eta orain arteko batzarrak kon-tuan hartuta, zortzi-hamar lagunek dihardute: Ozkarbi pilota elkarteko eta guraso elkarteko ordezkariez gainera, kirola egi-tea gustuko duten elgetarrak daude taldean. Gainera, Udalaren laguntza ere badute. Eguazteneko aurkezpenarekin euren asmo-ak helarazi nahi dizkiete herritarrei.

ARETXABALETA | 18:30EAN IZANGO DA

### Udal aurrekontuak aurkeztuko dituzte gaur osoko bilkuran

Gaur, astelehena, egingo duten ezohiko osoko bilkuran 2006ko udal aurrekontuak aurkeztuko dituzte. Gobernu batzordean ezta-baidatu ondoren osoko bilkuran onartu beharko dituzte aurre-kontuok, aurrera egin dezaten.

Horrekin batera, beste gai batzuk ere landuko dituzte. Urtarri-laren 9an atzeratutako osoko bilkurako gaiak ere sartuko dituzte gaurkoan. Hizkuntza politikaren gaineko mozioa eta udal langile-en lan hitzarmena eztabaidatuko dituzte, besteak beste, baita hiri-gintzako gaiak ere: Urvasco enpresaren zenbait ondasunen laga-pena eta Aozaratza auzoan Udalak duen lursail bat errentan ema-tea, hain justu ere.

OÑATI | 150 AFILIATUTIK GORA BATZARTUKO DIRA

### Eguaztenean erabakiko du EAJk alkate berria izateko hautagaia

Eguaztenean batzarra egingo dute EAJko afiliatuek batzokian, eta han erabakiko dute Andoni Gartzia alkatea ordezkatuko duen hautagaia. Gero, hilaren 23an egingo den osoko bilkuran onartu beharko du udalbatzak hautagai hori. Andoni Gartziari dagokionez, eguenean egingo dio uko karguari.

Otsailaren 1ean jakin genuen Andoni Gartziak alkate izateari utziko ziola; baita ere alkate berria Lurdes Idoiaga izango zela, segu-ruenik. Dena den, ez batak ez besteak ez dute informazio hori kon-firmatu. Garaia ikerkuntza zentroko gerentea da Andoni Gartzia, eta datozen bost urteetan hor jardungo du buru-belarri. Hala ere, zinegotzi izango da aurrerantzean eta Ogasun eta Teknologia batzor-deetan parte hartuko du.

ARAMAIO | OTSAILAREN 23RA ARTE

### Sarekide erakusketa zabalduko dute gaur, astelehena, Sastiñan

Eusko Jaurlaritzak Sarekide erakusketa zabalduko du gaur, aste-lehena, Sastiña aretoan. Landa eremuetako bizilagunei dago zuzenduta. Landa ingurunean teknologia berriek zelan lagun deza-keten erakusten du. Otsailaren 23ra arte egongo da ikusgai, aste-buruetan bakarrik. Erakusketaren helburua da gaur egungo eta etorkizuneko informazioari eta komunikazioari lotutako tekno-logia berrien gainean sentsibilizatzea, prestatzea eta informatzea. Horrekin batera, aukera eta proiektu berrien sorrera bultzatzea eta sustatzea ere bada erakusketaren helburua.

OÑATI | 19:30EAN, KULTURA ETXEAN

### Kanpaina berriaren gaineko hitzaldia egingo du etzi Elkarrik

Martxoaren 25etik aurrera erakunde berri batean eraldatuko da Elkarri; akordio anitzaren eta herri kontsultaren aldeko herri-tarren sare batean, hain justu. Hala, kanpaina horren berri ema-teko hitzaldi-solasaldia antolatu dute eguaztenean. 19:30ean izan-go da kultura etxean.

Beste hiru helburu ere baditu Elkarrik ekimen honen bidez: "Herritarren parte-hartzea bultzatzea, adiskidantza prestatzea eta indarkeriarik eza eta elkarrizketa defendatzea". Kanpaina aurre-ra eramateko 125.000 esku-ori banatuko dituzte, besteak beste. Informazio gehiago *www.elkarri.org* helbidean.

## Hitzorduak

MAKILLAJEA |

### Aratusteetan makillatzen ikasteko tailerra emango dute Aretxabaletan

Aratuste jaiei begira, makillaje ikastaroa antolatu dute Atxa-gazte gaztelekuan. Batik bat, mozorroarekin bat egiteko nor-bera zelan makillatu irakatsiko dute han. Hortaz, joaten direnek makillaje jakin bat irakasteko eskatu ahal izango dute.

Ikastaroa datorren asteburu-an, hilak 18 eta 19, emango dute: zapatuan, 18:00etatik 20:00eta-ra bitartean izango da saioa, eta domekan, berriz, 17:30etik 19:30era bitartean. Batik bat, 12tik 17ra urte bitarteko gazte-ei dago zuzenduta. Antolatzai-leek gomendatzen dute aldez aurretik izena ematea, baina parte hartu gura duenak gazte-lekura joan besterik ez du.



**ARAMAIO |**

**• Institutuan matrikula egitearen gaineko informazioa**
Arrasate Institutuan matri-kula egitearen gainean infor-matuko dute gaur, astelehena, San Martin herri eskolan, 18:00etan.

**• Udan saharar umeak hartzeko dei egin dute**
Uztailaren 6tik irailaren 6ra bitartean saharar umeak har-tzeko gertu dauden familiak behar ditu Udalak. Informazio gehiago jasotzeko, joan udal bulegoetara martxoaren 29a baino lehen.

**ARETXABALETA |**

**• Euskal presoen estatus politikoaren inguruan**
Euskal presoen estatus politi-koaren gainean berba egingo du Enrike Letonak eguenean, hilak 16, udaletxe zaharrean, 19:00etan. Loramendi elkarte-ak antolatu du hitzaldia.

**• Bi Internet ikastaro emango dituzte asteon KZgunean**
*Ardoa ezagutu* delako ikasta-roa emango dute bihar, mar-titzena, 11:00-13:00; eta *Komu-nikatu posta elektronikoaren bidez* delakoa hilaren 16an, eguena, 11:00-13:00 ere.

**ARRASATE |**

**• Internetez lana bilatzearen gaineko ikastaroa**
Internetez lana zelan bilatu irakatsiko dute hilaren 16an, eguena, KZgunean, 09:00-11:00. Egun berean, egunkaria Inter-netez irakurtzearen gainean jardungo dute, 19:00-20:00. Bi ikastaroak euskaraz emango dituzte.

**• DBHn matrikula egitearen gaineko informazioa**
DBHrako matrikula egitearen gaineko argibideak emango dituzte bihar, martitzena, Arrasate Institutuan, Musa-kolako eraikinean, 18:00etan. Ate irekien eguna ere egingo dute.

**BERGARA |**

**• Orfeoiak batzar orokorra egingo du bihar, otsailak 14**
Bergarako Orfeoiak batzar oro-korra egingo du bihar, marti-tzena, Zabalotegiko aretoan. Besteak beste, zuzendaritza berritu egingo dute. 20:30ean da lehen deialdia eta 21:00etan bigarrena.

**• Bertso afarirako txartelak salgai ipini dituzte**
Joxe Agirre eta Amets Arza-llusekin bertso afaria egingo dute Artatse elkartekoek hila-ren 18an, zapatua, eta txarte-lak salgai daude 22 eurotan Arranon, Pol-Polen eta Korta-Zaharren.

**• Aratusteetan batera bazkalduko dute erretiratuek**
Aratusteetako bazkaria egin-go dute San Joxepeko erreti-ratuek hilaren 28an, martitze-na, Tartufo jatetxean, 14:30ean. Joan-etorria autobusez egingo dute. Izenematea zabalik dago.

**ELGETA |**

**• Jaiak antolatu nahi dituztenendako batzarra**
Jaia antolatzeko batzordeak batzarra egingo du etzi, eguaz-tena, udaletxean, 21:00etan.

**• *Postal bat bidal ezazu* delako Internet ikastaroa**
Ikastaro hori emango dute etzi, eguaztena, KZgunean, 18:00-19:00 ordutegian.

**OÑATI |**

**• IT txartela ateratzeko azterketa egingo dute gaur**
Informazio teknologien era-biltzaile txartela ateratzeko azterketa egin daiteke gaur, astelehena, KZgunean, 11:00-13:00.

**• Herri batzarra deitu du Ereitten plataformak**
Udaleko egoera eztabaidatu-ko du Ereitten plataformak herri batzar baten eguenean, hilak 16, Arrano elkartean, 19:00etan.

**• Hildako alargunen omenezko meza eguaztenean**
Emaloña alargunen elkarteak meza entzungo du iaz hildako alargunen omenez. Etzi, eguaz-tena, izango dute meza San Martin egoitzako elizan, 17:00etan.

**• Elkarri erakundeak bere burua eraldatuko du**
Elkarri taldeak beste erakun-de baten eraldatuko du bere burua. Horren berri emango du jendaurrean etzi, eguaztena, kultura etxean, 19:30ean.


BERANGO
DEKORAZIOA, SUKALDEAK
LOGOS
ALTZARI INTEGRALAK
Q U 4 T R O
Tel.: 943 79 01 92
Gipuzkoa etorbidea 1
20500 Arrasate
Muebles
Kabía
Altzariak
4 URTE
interes barik
Gipuzkoa etorbidea 23
20500 Arrasate
Tel./Faxa: 943 79 27 70

# Iritziak



## Isilpekoak

**943 25 05 02**

**goienkaria@goiena.com**

Zerbait esateko daukazula? Deitu edo idatzi e-posta. Zeri txaloak, zeri txistuak… Eta sail honetan aterako ditugu zure komentarioak.

**• San Martzial bideko marra ikusezinak**

Bergaratik idatzi digu irakurle batek, San Martzialerako bide bazterreko aparkalekuak direla eta. “Bergaran aparkatzea nahiko garesti dago aspaldi honetan. Garabi zerbitzurik ez dago, baina udaltzainek lana geratu ere egin barik egiten dute. Joan zen domekan taxi geralekuan isuna jarri zidaten. Domeketan, nik dakidala, pare bat taxi baino ez dira egoten Bergarako geralekuan, hortaz, beste sei bat aparkaleku libre egoten dira, aprobetxatzeko moduan. Hala ere, isuna! Hori dela eta, aspaldi honetan San Martzialera bidean lagatzen dut nire kotxea –lanera etortzeko erabiltzen dudana–. Erabateko aparkaleku *alegal* bihurtu dira bidearen alde biak eta ez dira gutxi izaten autoa han lagatzen duten gidariak. Udalari eskaritxo bat: seminarioko parkina berriz ere zabaldu bitartean, ondo legoke San Martzialerako bide bazterretan marrak margotzea, badaezpada ere”.

**• Errepideak zikin-zikin daude**

“Lanak batetik, euri falta bestetik eta elurrak ekarritakoa hirugarrenik, ohi baino zikinago daude gure bide bazterrak”. Horixe adierazi nahi izan digu Oñatiko irakurle batek. “Autoa garbitzeak ere ez du merezi, aspaldi honetan. Hara eta hona begiratzerik besterik ez dago, auto guztiek duten hautsaz ohartzeko. Ondo legoke ura indar handiz botatzen duten zisterna-kamioi horiekin pasadatxo batzuk egitea ibarreko errepideetan zehar. Aipatu barik lagako dugu Arrasate barruko kaleen egoera; Otalora kalea, esate baterako. Bai eta Bergaratik San Prudentziora bitartekoa ere. Dena dela, euria ez egitea ez da nahikoa aitzakia gure errepide bazterrak egoera horretan izateko”.

## Sarean harrapatuta

### Mozorrotuko zara Aratusteetan?

**Otsailaren 25ean hasita Aratusteak ospatuko dituzte Debagoieneko hainbat herritan. Azken urteotan badirudi geroz eta jende gutxiago mozorrotzen dela. Aretxabaletan herritar gehienak mozorrotzen dira, baina beste herri askotan ikastetxeetako umeak bakarrik mozorrotzen dira. Mozorrotuko zara Aratusteetan? Galdera hori egin dute *Goiena.net*-en, eta hemen dituzue erantzun batzuk.**

**MOZORROA NIK EGITEA GUSTATZEN ZAIT**

Egia esan, geroz eta imajinazio gutxiago daukagu mozorrotzeko orduan eta pentsatzeko ere denbora gutxiago hartzen dugu. Geroz eta jende gehiagok alokatzen du mozorroa, adibidez.

Ni, mozorrotzekotan, arropa egiten saiatzen naiz. Eta aurten ere egingo dut zerbait, azken momentuan, noski.

Lolo / www.goiena.net

**TXANOGORRITXUREN MOZORROA GOGOKOENA**

Nire ametsetako mozorroa Txanogorritxurena da. Ea aurten mozorroa lortzen dudan eta ametsa errealitate bilakatzen den! Normalean eskatu egiten dut mozorroa edo bestela etxeko arropa zaharrekin zerbait egin. Hala ere, noiz edo noiz erosi izan dut. Batez ere herriko jaietan koadrila osoa berdin mozorrotzeko.

Txanogorritxu / www.goiena.net

**ONENA DA ZAPATUAN MOZORROTZEA**

Oñatin martitzenean da mozorro eguna. Horregatik, langile askok hurrengo egunean lanera joan behar du. Egun horretan ikasleak bakarrik irteten dira. Nik aurten bueltatxo bat emango dut, baina lanera joan behar naizenez agian ez naiz mozorrotuko. Hemendik proposamen bat nahi diet egin oñatiar denei: mozorro eguna zapatura pasatu!

Oñatiarra / www.goiena.net

**ARETXABALETAN JENDE ASKO MOZORROTZEN DA**

Aretxabaletan geroz eta jende gehiago mozorrotzen dela esango nuke eta irudimen faltarik ere ez dagoela! Gainera, Aretxabaletan ere domeka izanda jende askok hurrengo egunean lan egin behar izaten du, baina hala eta guztiz ere, giro paregabea egoten da! Kontua da ohitura herrian ondo sartuta egotea! Badatoz, badatoz, badatoz…

Atxabaltarra/ www.goiena.net

**www.goiena.net**

**Ohitura galtzen ari dela dirudi, baina… mozorrotuko zara Aratusteetan?**




Zure iritzia eman nahi baduzu jo www.goiena.net webgunera

**ETXEKO GAUZEKIN MOZORROTUKO NAIZ**

Ni aurten sorgin mozorrotuko naiz. Baina, ez dut erosiko mozorroa. Etxeko arropa zaharrekin egingo dut. Ileorde beltz luzea, berriz, lagun batek utziko dit.

Sorgina / www.goiena.net

**KOADRILAKOEN ARTEAN EGITEN DUGU MOZORROA**

Guk beti asmatzen dugu koadrilan zerbait originala. Eta hilabete pare bat lehenago hasten gara egiten. Aurten ere pentsatu dugu eta ia bukatuta dago, baina ezin da ezer esan Aratusteak arte.

Niretzat horrek dauka grazia. Lagunen artean mozorroa egitea eta inori ez esatea, hori izaten da onena.

Joni / www.goiena.net

**EZ ZAIT MOZORROTZEA GUSTATZEN**

Niri tontakeria iruditzen zait mozorrotzearena. Niri ez zait sekula gustatu izan mozorrotzea eta Aratusteetan derrigorra da mozorrotzea? Betiko moduan jantzita irtengo naiz kalera, bakeroekin.

Jabi / www.goiena.net

## Halaxe erantzun digute

Media Markt enpresa salatu dute publizitate sexista egitearren. Zergatik egiten da horrela publizitatea

?



**ASIER ALBISTUR** | AZK TALDEA

Gustu txarreko kanpainez gain, emakumeari eta sexuari buruzko estereotipoz josiak daude hedabideak. Errealitatea era sinplean azaltzea nahi du jendeak, eta horretan publizitatea da errege. Arazoa da egunerokoan estereotipo horiek baino haratago joateko ez garela gai.



**ARANTZAZU LAGUNILLA** | ARTEMAN

Era askotako abusuak daude (iruzurtiak, subliminalak…). Horregatik, debeku neurriak jartzea ondo dago, baina interesgarriagoa da heziketa, eta sektorea autokontrolatzea. Komunikazioko profesionalok dagokigun erantzukizuna aztertu eta etika profesionala zaindu beharrean gaude.



**ESTHER LIZARRALDE** | ARRASATEKO EMAKUME TXOKOA

Oraindik ere gizarteak sexista izaten jarraitzen duelako. Eta publizitatea horren isla da: emakumeak objektu gisa erabiltzeak, egungo berdintasun formalaren atzetik, diskriminazioak dirauela adierazten du. Hori horrela den bitartean, publizitatea, beste arlo batzuk lez, sexista izango da.



**BEATRIZ ZABALONDO** | IKUS-ENTZUNEZKO IRAKASLEA

Diruagatik erantzutea ez da gezurra; egia osoa ere ez. Emakumeei buruzko klixe eta estereotipoak zabaltzeko interesa ez da jarduera inozoa: ezin da nahastu hori bizimodua atera nahian diharduen langile gehienez afanoso eta irudimen estukoaren “harrokeriarekin”.

## Egunkarietako harribitxiak

**NAZIONALISTAK, BESTE AURPEGIA**
Bi orritan, eta zeharkako estiloan, elkarrizketa egin zioten atzo Josu Jon Imazi *El Mundo*ren domekakoan. EBBko lehendakariaren ikuspegi pertsonala erakusteko erreportajea zen eta adierazpenak adierazpen, bi orritako argazkiak eta barruko karikaturak deigarriagoak izan ziren.

**'Magazine'**
2006-02-12


NACIONALISTAS
JOSU JON IMAZ

**TORTURAK JOXE ARREGI IZENA HARTU ZUEN**
Bihar beteko dira 25 urte Joxe Arregi Carabanchelgo espetxeko ospitalean hil zela, komisarian jasandako torturen ondorioz. Hura gogoan, torturaren aurkako eguna da bihar Euskal Herrian. Horren guztiaren harira, orduko bizipenak jaso zituen atzo *Berria*k *Igandea* gehigarrian. Arregi 1981eko otsailaren 4an atxilotu zuten, Madrilen. ETA militarreko ustezko beste hiru kiderekin batera autoan zihoala geldiarazi zituen Poliziak. Atxilotu zuten egunetik otsailaren 12ra, Espainiako Poliziaren Segurtasunerako Zuzendaritza Nagusian (DGS) eduki zuten Arregi. Handik Carabanchelgo espetxeko ospitalera eraman zuten, hilzorian. Han ETAko eta PCEko hiru presorekin egon zen eta komisarian bizitakoaren berri eman zien.

**'Berria'**
2006-02-12


IGANDEA
Torturak Joxe Arregi izena hartu zuen

## Tira, tira...



Arco, instalazioa.
**Máximo** 'El País' | 2006-11-12

## Zorroztailea

# Gosetearen argazkia



*Nigerreko gosetea urteko argazki onena. Reuters agentziako Finbarr O´Reilly argazkilaria saritu dute World Press Photo argazki lehiaketan, Tahouako elikagaiak lortzeko zentroan (Niger) ama-ume hauei egindako erretratuagatik.*

**'Berria'** | 2006-02-11

Elena Laka

Domekako nagiak aspaldi astindu dituzu, gaur astelehen buruzuria. Asteburukoak honezkero burutik aldenduta, gehienez ere Realaren partida duzu mintzagai. Orain buruan darabilkizuna astean zehar egin beharrekoak dira: lana, enkarguak, familiako horrena… Eta hara non datorkizun zorroztailea lehenaldiaren ganbaran gordetako kontu bat ateratzera berriro.

Gosetearen argazkia, sariaren argazkia. Gogoan daukazu nola herenegun, zapatuan, egunkaria hartu zenuenean, asaldatuta sentitu zinen emakume beltz haren begiak ikustean. Gogoratzen duzu lehenengo bistako kolpean ez zenuela ondo ulertu esku txiki, ximel hura berari ala nori zegokion. Bigarren segunduan konturatu zinen: emakume bat ume txikia besoetan zuela, umetxoari eskua baino ez zaio ikusten amaren ahoaren parean. Erretratuak sabeletik heldu zizun, begiak desbideratzeko gogoa ematen zuen, baina hala ere ezin begiratzeari laga. Obatuta zeunden. Argazkiak obatuta, begi haiek obatuta, esku txiki, ximur hark obatuta.

Izugarrikeria sabelean instalatuta, bururatu zitzaizun guraso zarenetik beste guraso batzuei gertatutakoek minberago aurkitzen zaituztela, gehiago sufritzen duzula inoren umeen arazoekin. Eta gogoratzen duzu argazkiari begira zeundela dardara batek astindu zizula bularra, zure umeei zer jaten eman ez izatea pentsatze hutsarekin.

Egunkariak, baina, berri asko ditu, zure buruak arazo pila bat. Astelehen honetan, etsipen beltza adierazten zuten bi begi distiratsu haiek buruko atzeko ganbaran dauzkazu. Nola bizi bestela.

**"Argazkiari begira dardara batek astindu zizun bularra, zure umeei zer jaten eman ez izatea pentsatze hutsarekin"**

**"Astelehen honetan, etsipen beltza adierazten zuten bi begi distiratsu haiek buruko atzeko ganbaran daukazu"**

## Egunkarietan irakurri dugu

### 'El Diario Vasco'

**ELKARRIZKETA**

"ETA ez da aldatu eta ez dago bakean, boterea nola lortu pentsatzen ari da. Autodeterminazioa da gakoa. Egin dezake iragarpenen bat epe laburrean, beti baldintzak jarrita, baina ETAk ez du behin betiko terrorismoa lagako autodeterminazioa lortu arte. Eta Espainiako Gobernuak onartu du, dagoeneko, Kataluniaren nazio kontzeptua".

**Jaime Mayor**
2006-02-12

### 'Deia'

**ELKARRIZKETA**

"Beste gauza batzuez berba egin aurretik terrorismoaren amaiera konpondu behar dugu. Ni ez naiz bizi Ibarretxek azaltzen duen mundu idiliko horretan, ez dakit zein ratioz berba egiten duen. Nahi dut euskaldun guztiak lehendakaria dagoen moduan egotea. Ez dut uste hori asko eskatzea denik".

**Javier Rojo**
2006-02-12

### 'Berria'

**ELKARRIZKETA**

"Ezker abertzaleak, gatazka gaindituko duen prozesu bati begira, ez du jartzen bere esperantza, ez Espainiako Estatuaren ez Frantziako Estatuaren borondatearen arabera, baizik eta herri indarraren arabera. Beharrezkoak dira Euskal Herrian, euskal eragileen arteko konpromisoak. Hor daukagu guk konfiantza osoa jarrita".

**Arnaldo Otegi**
2006-02-12

### 'El Mundo'

**ELKARRIZKETA**

"Nik defendatzen dudan ETAren amaieran, baldintzarik gabeko errendizioan, hain justu, biktimen zeresana erabatekoa izango da. Savaterrek esan du borroka hau garaileekin eta garaituekin bukatu behar dela, Alemaniako gerra bukatu zen bezala, eta ni bat nator horrekin. Biktimek paper garrantzitsua jokatu behar dute hor".

**Enrique Mugika**
2006-02-12

ASTELEHENEKO Goienkaria

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Monika Belastegi
**Erredakzioa** Marijo Deogracias, Jon Berezibar, Arantzazu Ezkibel eta Larraitz Zeberio.

**Jatorrizko diseinua** Goio Arana | **Maketazioa** Imanol Soriano | **Maketazio laguntzailea** Kepa Martelo | **Testuen zuzenketa** Karmele Etxabe | **Publizitate arduraduna** Gotzon Arzelus | **Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe | **Harpidetza eta banaketa arduraduna** Marta Leturia | **Administrazio arduraduna** Agurtzane Gaintzarain

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
**Presidentea** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Iñazio Arregi

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# KIROLA

• Verkol Aloñako neskek denboraldiko lehen partidua irabazi dute, 26-21 | 14
• 4x4 automobilen erakustaldian 25 bat gidari batu ziren atzo Apotzagan | 17



Arkaitz Letamendi eta haren anaia Ibanekin jardun dugu mendiko eski lasterketaz | 19

**PREFERENTE MAILAKO TALDEAK**

MONDRA
## 2-0
BETI GAZTE

**Mondra** | Ander, Losada (Azpiazu, 85. min.), Illart, Markel, Mercader, Julen Aranbarri (Ekain, 56. min), Loiti (Alzola, 65. min.), Keixi, Muruamendiaraz, Zubikarai (Julen Garmendia, 80. min.) eta Julen Heriz (Iker Lopez, 56. min.).

**Beti Gazte** | Joseba Telletxea, Lasaga, Maritxalar, Zudaire (Mikel), Larrui, Jon Telletxea, Santisteban (Etxebeste, 76. min.), Maia (Fernandez, 80. min.), Larralde, Saralegi eta Errandonea.

**Golak** | 1-0, Jon Muruamendiaraz (15. min.). 2-0 Josu Zubikarai (18. min.).

**Epailea** | Etxarri jauna. Ez zuen lan handirik izan. Hiru txartel hori eta txartel gorri bat atera zituen. Azken erabaki hau zalantzazkoa izan zen.

**Bestelakoak** | Ohiko ikusle kopurua hurbildu zen Atxabalpera atzo. Eguraldia lagun izan zen neurketa osoan.

### Bikain

**Jon Muruamendiaraz**
Bigarren partidua zuen Jon Muruamendiarazek Mondran. Ezaguna da taldean eta Beasaingo taldeak lagata Mondran jokatuko du. Berak egin zuen lehen gola.

### Kaskar

**Nafarren jokoa**
Ezer gutxi erakutsi zuten Beti Gazteko mutilek Atxabalpen. Gaizki aritu ziren erasoan baita defentsan ere. Mondrako jokalariek erraz aurkitu zituzten beharrezko zituzten zuloak.

### Esandakoak

"Ez dugu aparteko partidua egin baina bi gol egin ditugu lehen zatian eta lasai ibili gara atsedenaren ostean".

**JULEN GARMENDIA** |
MONDRAKO JOKALARIA

"Nahiz eta joko ikusgarria ez egin taldeak nahiko erraz atera du partidua eta aspaldiko partez hiru puntu lortu".

**UNAI DIEZ** |
PRENTSA ARDURADUNA



JOSETXO ARANTZABAL

Josu Zubikarai, 32. minutuan, Beti Gazteko atezainaren aurrean taldearen bigarren gola egiteko prest.

**FUTBOLA** | IA BI HILABETE ZERAMAN TALDEAK IRABAZI BARIK

# Lehen 20 minutuetan egin zituen bi golak Mondrak

*Lesakako Beti Gazte taldeak joko txarra egin zuen Atxabalpen. Erasoan zein defentsan Bortzirikoek ez zuten inolaz ere maila eman*

Larraitz Zeberio

Sailkapenaren erdian jarraitzen du Mondrak, baina aspaldiko partez garaipenaren hiru puntuak lortzeak ematen duen lasaitasunarekin joan ziren aldagelara jokalari zerrajeroak.

Atzo, domeka, jokatu zuen asteburuko norgehiagoka Mondrak. Lesakako Beti Gazte taldea izan zuten aurrez aurre Gordobilenak. Partidua hasi eta gutxira erakutsi zuten nafarrek zergatik dauden beheko postuetan.

**BI GOLAK LEHEN ZATIAN**
Beti Gazteren joko maila ezagututa Mondrak ezin zuen barkatu eta ez zuen hutsik egin.

Joan zen asteetan ikusitako txartel guztien eraginez Arrasateko taldeak hainbat jokalari izan zituen harmailetan baina zerrajeroak konpondu ziren ezinbestekoa zuten garaipena lortzeko.

Mondrak ez zuen joko ikusgarria egin baina erraz lortu zuen Beti Gazteko jokalariak kontrolpean edukitzea. Lehenengo zatiko 20. minuturako 2-0 aurreratuta zegoen etxeko taldea. Jon Muruamendiarazek egin zuen lehenengo gola 15. minutuan. Pare bat saiakera eginak zituen aurretik Muruak eta azkenean lortu zuen baloia sareetara bidaltzea.

**Muruamendiaraz eta Zubikarai izan ziren Mondrako golegileak atzokoan**

**Beti Gazte jokalari bat gutxiagorekin gelditu zen 39. minutuan txartel gorria ikusita**

Bigarren gola Josu Zubikaraik egin zuen 18. minutuan. Bakarrik iritsi zen Josu nafarren area barrura eta bikain engainatu zituen Beti Gazteko defentsak jaurtitzeko une egokia iritsi arte.

Mondraren bigarren golaren ostean, gainera, txartel gorria ikusi zuen Beti Gazteko jokalari batek.

**BIGARREN ZATIAN AHULAGO**
Beti Gazte hamar jokalarirekin geldituta harmailetan jarraitzaile askok hirugarren gola espero zuten bigarren zatian.

Ez zen horrela gertatu. Aukerak sortu zituen etxeko taldeak baina huts egin zuen jaurtiketa guztietan. Beti Gaztekoek, bitartean, Mondra estutzen saiatu ziren baina eraginkortasun gutxirekin. Etxeko taldea ahuldu zen modura ahuldu zen Beti Gazte ere.

PREFERENTE MAILA




JOSETXO ARANTZABAL

Partidu gogorra izan zen atzokoa Aretxabaletakoendako. Oriokoek defentsa lan gogorra egin zuen eta.

# Luzapenean lortu zuen garaipenaren gola UDAk

UDA
1-0
ORIOKO

A.G.

Gogorra izan zen atzoko partidua Ibarran. Aretxabaletakoek Orioko taldea izan zuten aurrez aurre eta lehen zatian baloiaren jabe izan baziren ere ez zuten markagailua estreinatzerik izan.

"Partidu oso txarra egin dugu", adierazi zigun Felix Recio entrenatzaileak. "Aspaldiko partez txarrena".

**GOLA LUZAPENEAN**

Entrenatzailea ez dago gustura taldeak egindako lanarekin baina inork baino gehiago ospatu zuen Igor Arriagak 94. minutuan sartutako gola.

Gol polemikoa izan zen eta Orioko taldeak luze egin zuen protesta Delmonte epaileak tantoa ontzat eman zuelako.

Baloiak atea zulatu aurretik marrazainak gora eraman zuen banderatxoa jokoz kanpokoa adieraziz. Txistu artean hartu zuen azken erabakia Delmonte epaileak. Gola adierazi zuen Arriagarengana iritsi aurretik baloiak Orioko defentsa bat ukitu zuela argudiatuta. Pozik hartu zuten erabakia etxekoek, ez ordea Orioko jokalari eta jarraitzaileek.

**ISTILUAK ALDAGELETAN**

Gola adierazi eta minutu batera eman zuen partidua amaitutzat Delmonte epaileak. Ozen adierazi zuten euren desadostasuna Orioko jarraitzaileek Ibarra futbol zelaian. Epaileak txistu artean utzi zuen futbol zelaia.

Oriokoen haserreak eman zuen besterik ere. Aldageletan kolpeak eta protesta oihuak izan ziren nagusi. Egon zen epailearen aldagelara hurbildu zenik ere baina honek giltzapetuta zeukan atea.

Asko luzatu zen Delmonte epailea akta idazteko. Ordu eta hamabost minutu itxaron behar izan zuten talde bakoitzeko ordezkariek agiria eskuratu eta sinatu baino lehen. Harrokeriaz jokatu zuela esan beharra dago.

# Aloñak lidertza sendotu du lortutako puntuarekin

ZESTOA
0-0
ALOÑA MENDI

Arantzazu Ezkibel

Aloñari lidertza sendotzeko balio izan dio zapatuan Zestoan lortutako puntuak. Aukera gutxiko partidua izan zen Zubiaurre futbol zelaian Zestoak eta Aloñak jokatu zutena. Hala eta guztiz ere, oñatiarren entrenatzailea gustura zegoen taldearen lanarekin; taldea fisikoki lan ona egiten ari da eta hori zelaian nabaritu egiten da.

**ZESTOAK PENALTIA ALDE**

Lehengo zatiko 40. minutuan, Zestoak penalti bat huts egin zuen. Atsedenaren ostean, jokalari bat gutxiagorekin geratu ziren etxekoak. Aloñak aurrera egiteko aprobetxatu zuen momentua, baina jokoak ez zuen fruiturik eman. Azkenean, husnako berdinketa.

## Emaitzak eta sailkapenak / Preferente maila

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Touring-Pasaia | 3-1 |
| UDA-Orioko | 1-0 |
| Zestoa-Aloña Mendi | 0-0 |
| Allerru-Idiazabal | 1-0 |
| Mondra-Beti Gazte | 2-0 |
| Berio-Mutriku | 2-0 |
| Irun 1902-Ordizia | 0-4 |
| Anaitasuna-Zarautz | 0-1 |
| Hondarribia-Hernani | 2-0 |
| Trintxerpe-Real Union | 3-0 |

**HURRENGOAK**

Real Union-Touring
Pasaia-UDA
Orioko-Zestoa
Aloña Mendi-Allerru
Idiazabal-Mondra
Beti Gazte-Berio
Mutriku-Irun 1902
Ordizia-Anaitasuna
Zarautz-Hondarribia
Hernani-Trintxerpe

**SAILKAPENA**

| | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1.**Aloña Mendi** | **49** | 24 | 15 | 5 | 4 | 48 | 29 |
| 2.**Real Union** | **48** | 24 | 15 | 6 | 3 | 49 | 27 |
| 3.**Ordizia** | **47** | 23 | 15 | 6 | 2 | 42 | 22 |
| 4.**Trintxerpe** | **43** | 23 | 13 | 6 | 4 | 42 | 30 |
| 5.**Aretxabaleta** | **42** | 23 | 12 | 5 | 6 | 43 | 22 |
| 6.**Zarautz** | **42** | 24 | 12 | 6 | 6 | 46 | 27 |
| 7.**Pasaia** | **40** | 24 | 10 | 4 | 10 | 51 | 35 |
| 8.**Mutriku** | **37** | 24 | 11 | 9 | 4 | 51 | 35 |
| 9.**Touring** | **35** | 24 | 10 | 9 | 5 | 34 | 32 |
| 10.**Mondra** | **34** | 23 | 10 | 9 | 4 | 36 | 27 |
| 11.**Hondarribia** | **32** | 24 | 9 | 10 | 5 | 29 | 38 |
| 12.**Hernani** | **30** | 24 | 8 | 10 | 6 | 33 | 36 |
| 13.**Anaitasuna** | **28** | 23 | 8 | 11 | 4 | 26 | 32 |
| 14.**Berio** | **28** | 24 | 7 | 10 | 7 | 34 | 37 |
| 15.**Idiazabal** | **27** | 23 | 6 | 8 | 9 | 26 | 36 |
| 16.**Zestoa** | **26** | 24 | 6 | 10 | 8 | 27 | 34 |
| 17.**Irun 1902** | **18** | 24 | 4 | 14 | 6 | 27 | 50 |
| 18.**Beti Gazte** | **17** | 24 | 3 | 13 | 8 | 24 | 42 |
| 19.**Orioko** | **17** | 24 | 3 | 13 | 8 | 27 | 59 |
| 20.**Allerru** | **14** | 24 | 3 | 16 | 5 | 19 | 50 |

## Lehenengo erregionala

# Bergarak zerbait gehiago merezi zuen Astigarragan

ASTIGARRAGA
2-1
BERGARA

Arantzazu Ezkibel

Bergarak atzera egin du sailkapenean Astigarragaren aurka 2-1 galdu eta gero. Josu Zubia entrenatzailearen ustez, taldeak gehiago merezi izan zuen zapatuan. Etxekoek ez zituzten Bergarak baino gol aukera gehiago egin; hala ere, izandako aukerak ondo aprobetxatu zituzten eta garaipena lortu zuten.

**GALTZEN HASI ZIREN**

Bergarako jokalariak ondo kokatuta zelairatu ziren. Baloia bizitasunez mugitu zuten zelaiaren alde batetik bestera, baina aukera garbirik ez zuten lortu.

Talde mahoneroak sortutako aukeretako batean, epaileak Bergara kaltetu zuela uste du Josuk. Bergarako entrenatzailearen arabera, Astigarragako batek penalti argia egin zion Bergarako jokalari bati, baina epaileak ez zuen ezertxo ere adierazi. Atsedenerako gutxi falta zela, epaileak Bergara jokalari bat gutxiagorekin utzi zuen, Dovao kaleratu zuenean. Lehenengo zatia banako berdinketarekin amaitu zen. Bergarako gola Asierrek sartu zuen. Bigarren zatiko 25. minutuan, etxekoek bigarren eta azken gola lortu zuten.

Sailkapenari begira, Bergara 2. postutik 3.era jaitsi da. 19 partidu jokatu eta gero 41 puntu lortu ditu talde mahoneroak. Liderra, Zumaiako, bi puntura dute bergararrek.

## Emakumezkoen igoera fasea



JOSETXO ARANTZABAL

**BERGARAK ETA REAL UNIONEK BERDINDU EGIN ZUTEN**

Bergarak husnako berdinketa lortu zuen atzo Real Unionen aurka Ipintzan jokatutako neurketan. Irundarrek bergararrek baino aukera gehiago sortu zituzten, baina etxekoen atezaina ondo aritu zen eta baloi asko gelditu zituen. Bigarren zatiko 30. minutuan, Oihanak area kanpotik falta jaurti zuen, baina baloia gutxigatik kanpora joan zen.

• NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA

# Verkol Aloñak ligako lehen garaipena eskuratu du

*Orain arte garaipenik lortu gabe zeuden arren, zapatuan merezita irabazi zuten*



JOSETXO ARANTZABAL

Aloñako neskek beharrezkoa zuten garaipena beraiengan konfiantza hartzeko.

VERKOL ALOÑA

**26-21**

GALDAKAO

**Verkol Aloña** | Guridi, Barrena, Goñi (4), Suarez (1), Larrañaga (6), Unamuno (3), Moreno, Ruiz de Cenzano, Elortza, Arteaga (8), Manuel (4), Garcia eta Hernandez.

**Galdakao** | Porras (6), Vacas, Aizarna (2), Luque (2), Medina (1), Perez, Eguskitza (1), Argoitia, Sanchez (9), Pozo eta Cortes.

**Golak:** 2-3, 3-5, 7-8, 9-8, 11-10, 12-12, 16-13, 19-16, 21-18, 23-19, 24-20, 26-21.

Arantzazu Ezkibel

Oñatiko Aloña Mendiko neskek ligako lehenengo garaipena eskuratu zuten zapatuan etxekoen aurrean. Azken partiduetan garaipena gertu izan duten arren, oñatiarrei azken unean garaipenak ihes egin die. Zapatuan, ordea, bi puntuak etxean geratu ziren.

Partidua nahiko motel hasi zuten Aloñakoek. Lehenengo minututan 0-3ko partziala egin zuten bizkaitarrek. Etxeko neskek zulo asko utzi zituzten defentsan eta aurkariek huts horiek aprobetxatu zituzten golak egiteko.

Baina partidua aurrera zihoan heinean, oñatiarrek lekua hartu zuten kantxan eta markagailuari buelta eman zioten. Erasoan, Aloñako zentralak, Olatzek, ondo eraiki zituen zuloak.

**ATSEDENAREN OSTEAN INDARBERRITUTA ETXEKOAK**

Bigarren zatian, Aloñako neskak gogotsu kantxaratu ziren. Minutu gutxitan 4-0eko partziala egin zuten markagailuan aurrea hartuz. Alde hori partidua amaitu arte mantentzea lortu zuten etxekoek.

Garaipena eskura zutela ikusirik, etxekoek konfiantza hartu zuten. Erasoan joko polita egin zuten; aipatzekoa da Jone Larrañagaren lana. Jokalari oñatiarrak 6 gol sartu zituen. Aloñako atezaina ere fin aritu zen, azken minutuetan geldiketa garrantzitsuak egin zituen Guridik.

• LEHENENGO NAZIONALA

## Aloñak lau puntutatik bi eskuratu ditu

Asteleheneko Goienkaria

Aloñak Urolaren aurka 21-25 galdu zuen atzo. Urola talde indartsuagoa izan zen norgehiagokaren une guztietan.

Lehenengo zatian oñatiarrek ondo eutsi zioten Urolari. Joko ona egin zuten etxekoek, batez ere defentsan. Baina bigarren zatian, Urolak aldea hartu zuen markagailuan eta etxekoek ezin izan zioten horri bueltarik eman.

Aipatzekoa da Oñatiko jokalarien artean, Galartzak, azken partiduetan bezala, lan ona egin zuela.

**ATZERATUTAKO PARTIDUA**

Aloñak bigarren partidu bat ere jokatu du asteburuan. Urnietaren aurka 21-25 irabazi zuten oñatiarrek; duela bi aste epaile faltagatik atzeratuta geratu zen norgehiagoka zen hau.

• LEHENENGO NAZIONALA

## 28-31 irabazi zion Bergarak Hondarribiari

Asteleheneko Goienkaria

Bergarak Hondarribitik bi puntu ekarri zituen atzo. Partidua ez zen oso ona izan, baina bergararrek arazorik gabe lortu zuten irabaztea. Hasiera-hasieratik jarri ziren markagailuan aurretik.

Mikel Plazaolak 13 gol egin zituen. Bestalde, Kapelastegi atezaina ere ondo aritu zen.

• LEHENENGO TERRITORIALA

# Elgoibarko taldea ez zen arerio izan

FORD MUGARRI

**33-17**

ELGOIBAR

**Ford Mugarri** | Egaña, Valle, J. Ezkibel (4), Garcia (4), Fernandez (3), Espeso (3), Murillo (29), Lonbide (5), Calleja (4), Altzelai (4), Isasmendi (4) eta A. Ezkibel.

**Elgoibar** | Conde (5), Altuna (2), Zubiaurre (1), Membrillera (2), Garaizabal (2), Arrieta, Cordon (3), Jon A., Martinez, Aguriagerra (2), Esnaola eta Gonzalez.

**Markagailua atsedenean:** 17-9.



JOSETXO ARANTZABAL

Arrasatekoak ondo aritu ziren erasoan.

A.G.

Garaipen erraza izan zen, Elgoibarko taldea ez zen-eta arerio gogorra izan Arrasatekoendako. Andoni Arandoren mutilak motel hasi ziren, baina laster hartu zioten neurria aurkariari.

Elgoibarkoek lan txarra egin zuten defentsan eta laster antzeman zitzaien fondo gutxiko jokalariak direla.

**DATORREN ASTEAN ARERIO GOGORRA**

Lau norgehiagoka gelditzen zaizkio Arrasateko taldeari txapelketa amaitzeko. Taulako bi talde hoberenak sailkatuko dira igoera faserako eta Ford Mugarrik aukera handiak izango ditu datorren astean Urola mendean hartzen badu. "Urteko partidurik garrantzitsuena izango da", adierazi digu Andoni Arando entrenatzaileak. Mailaz igotzea aspaldiko erronka da.

## Emaitzak

**MAILAZ MAILA**

| | |
|---|---|
| **NESKEN EUSKADIKO TXAPELKETA** | |
| Verkol Aloña-Galdakao | 26-21 |
| **LEHENENGO TERRITORIALA** | |
| ITE Hondarribia-Bergara | 28-31 |
| Arrikrutz Oñatiko Kobak-Urola Agip | 21-25 |
| Arrikrutz Oñatiko Kobak-Urnietako | 26-23 |
| Ford Mugarri Arrasate-Elgoibar | 33-17 |
| **BIGARREN TERRITORIALA** | |
| Hegialde Auto-Arrasate Esku Baloi | 20-16 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Gatz Museoa Jakion | atsedena |
| Urola-Aloña Mendi | 21-16 |
| Leitzaran-Bergara | 19-33 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Urola Premank-Arrasate | 28-6 |
| Verkol Aloña-Ereintza | 28-18 |
| Bergara-Aiala Zarautz | 18-18 |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Gatz Museo Jakion-Egia | 15-34 |
| Usurbil-Aloña Mendi | 27-17 |

• LEHENENGO MAILA, IGOERA FASEA

# Bi zati oso ezberdineko partidua

*Arrasatekoei kosta egin zitzaien Santutxuko taldeari neurria hartzea, baina atsedenaren ostean alde nabarmena zabaldu zuten*

**MUGARRI ALKESA**
**93-69**
**OCASO BERRIO OTXOA**

**Mugarri Alkesa** | Gamarra (20), Domingo, Mallabiabarrena (10), M. Biain (5), Barberena (16), Herzog, Kintana (16), Hernandez (6), Alartzia(15), Aranburu (2) eta Isasa (3).

**Ocaso Berrio Otxoa** | Rodriguez (6), Casado (9), Cabana (9), Ruiz de Lazkano, Diez (9), Goiriena (14), Mendia (6), Perez, Lopez (4), Sainz-Trapaga (12) eta Gonzalez.

**Markagailua:** Lehenengo laurdena 18-22. Bigarren laurdena 36-34. Hirugarren laurdena 68-52. Laugarren laurdena 93-69.

Larraitz Zeberio

Partiduko azken emaitzak beste gauza bat adierazten badu ere, estuasunak izan zituzten Zurutxutzaren mutilek norgehiagokaren lehenengo bi laurdenetan.

Santutxuko Ocaso Berrio Otxoa taldea gogor irten zen kantxara eta hasierako bi laurdenetan aurretik jarri zen markagailuan. Atsedenaren ostean, ordea, etxeko taldeak oso bestelako jokoa erakutsi zuen eta gauzak zeharo aldatu ziren Iturripe kiroldegian.

### GIRO POLITA ITURRIPEN

Mugarri Alkesako jokalariek badakite mailaz igotzeko txartela garesti dagoela, baina ahalegin handia egiten ari dira sailkapeneko goiko postuetan mantentzeko. Zapatuan Ointxe Arrasate elkartearen zein jarraitzaileen babesa nabaritu zuten Iturripen. Saskibaloi elkarteak txokolate beroa prestatu zuen ikusleendako eta Sorgintxo txarangak giroa alaitu zuen harmailetatik.

### PARTIDU HASIERA GOGORRA

Aldrebesak izan ziren norgehiagokaren lehen minutuak etxeko taldearendako. Santutxukoak ondo kokatuta irten ziren kantxara eta ez zuten jaurtiketetan hutsik egin. Dena barrura joaten zen. Laster zabaldu zuten zortzi puntuko aldea markagailuan. Arrasatekoek talde jokoa berrantolatzeko aukera izan zuten, eta defentsa hobetuz lau puntura jaitsi zuten tarte hori lehen laurdena amaitu baino lehen.



JOSETXO ARANTZABAL

Gorka Alartziak partidu ona egin zuen, batez ere bigarren zatian.

Bigarren laurdenean berdintzea lortu zuten etxekoek, eta baita lehen aldiz aurretik jartzea ere. Bereziki ona izan zen lehen bi laurden hauetan Beñat Barberenaren lana. Zoragarria izan zen atsedenaren aurretik Antxon Hernandezek egindako hiruko saskiratzea ere.

### AMAIERA BIKAINA

Atsedenaren ostean oso bestelako norabidea hartu zuen neurketak. Mugarri Alkesa errebotean jabe egin zen eta nabarmen hobetu zuen defentsa lana. Lehen lau minutuetan 11 puntuko tartea zabaldu zuen Santutxukoekiko, eta orduan hasi ziren gozatzen jokalariak zein Iturripen bildutako ikusle guztiak.

Etxekoen hiruko saskiratzeek txalo zaparradak eragin zituzten harmailetan. Modu bikainean borobildutako jokaldi ikusgarriak ere eskertu ziren.

• NESKEN BIGARREN MAILA

## Jaurtiketa libreetan galdu zuten partidua Eskoriatzakoek

**BASAURI**
**54-48**
**ESKORIATZA**

A.G.

Kanpoan etxean baino partidu hobeak egiten dituzte Eskoriatzako neskek. Asteburu honetan ere horrela izan da.

Basauri sailkapeneko goiko postuetan dagoen taldea da, eta sei puntuko tartea besterik ez zuten lortu taulako azken sailkatua den Eskoriatzaren aurka. Partidua amaitzeko minutu eta erdi falta zenean puntu bakarreko aldea zegoen bi taldeen artean.

Jaurtiketa libreetan galdu zuten norgehiagoka Corbalen neskek. 22 puntu izan zituzten aukeran eta 5 besterik ez zituzten lortu. Basauriko taldeak, aldiz, 25 puntu egin zituen jaurtiketa libreetan.

### DEFENTSAN LAN ONA

Neurketa borrokatua izan zen. Berdinketarekin amaitu zen lehenengo laurdena eta atsedenera 34-28 iritsi ziren bi taldeak.

"Ondo aritu ginen erasoan lehen zatian, baina falta asko egin genituen eta jaurtiketa libreak sartu zizkiguten", adierazi digu Javi Corbal entrenatzaileak. "Atsedenaren ostean hobeto aritu ginen defentsan eta gauzak zaildu genizkien Basaurikoei. Galdu egin genuen eta penatuta itzuli ginen etxera, baina partidu ona egin genuen" .

• SENIOR MUTILAK

# Azkenera arte parean izan ziren

**ALOÑA MENDI**
**59-57**
**CANDY BERGARA**

**Aloña Mendi** | Goitia, Madariaga (8), Otamendi (17), Arregi (1), Zabaleta (18), Anduaga (7), Amado (1), Gorostiaga (2), Garcia, Anton (5), Mendiola eta Madinabeitia.

**Candy Bergara** | Murillo (7), Ancin, Urbina, Morais (9), Arteaga (2), Larrañaga, Beistegi (4), Ugarte (4), Alonso (3), Iñarra (4), Aliaga eta Eraña (24).

**Laurdenetako emaitzak:** Lehenengo laurdena, 9-19. Bigarren laurdena, 33-32. Hirugarren laurdena, 44-45. Laugarren laurdena, 59-57.

Arantzazu Ezkibel

Aloñak eta Candy Bergarak derbi parekatua jokatu zuten zapatuan Zubikoan. Azken minututan norgehiagoka etxekoen alde erabaki zen arren, Bergarak ez zuen amore eman eta indar guztiz borrokatu zuen garaipena lortzeko.

### EPAILEA FALTA ZEN

Zubikoara ez zen epailerik agertu zapatuan. Hori dela-eta, etxeko taldeko arduradun batek egin zituen epaile lanak.

Bi taldeek partidu eskasa jokatu zuten; erritmo gutxikoa eta huts askokoa.

Bergarak Gorka Erañaren jokoa aprobetxatu gura izan zuen; erasoan talde guztia taularen azpian sartzen zen honek batbatekoak egiteko. Aloñak, berriz, kanpoko jaurtiketa asko egin zituen. Errebotean ere ondo aritu ziren etxekoak, batez ere Otamendi. Azkenean, Aloñarentzat izan ziren bi puntuak.



JOSETXO ARANTZABAL

Jokalariek epailearen lanarekin ardura handiagoa zuten jokoarekin baino.

## Emaitzak

**MAILAZ MAILA**

| | |
|---|---|
| **LEHENENGO MAILA** | |
| Mugarri Alkesa-Berrio Otxoa | 93-69 |
| **NESKEN BIGARREN MAILA** | |
| Basauri-Eskoriatza | 54-48 |
| **SENIOR MUTILAK** | |
| Aloña Mendi-Candy | 59-57 |
| **SENIOR NESKAK** | |
| Aloña Mendi-Añorga | 32-57 |
| **GAZTE MUTILAK** | |
| Araneta-Mugarri Alkesa | 52-57 |
| La Salle-Aloña Mendi | 91-18 |
| **GAZTE NESKAK** | |
| Aloña Mendi-Añorga | 39-38 |
| Eskoriatza | atsedena |
| **KADETE MUTILAK** | |
| Mugarri Alkesa-Goierri | 56-44 |
| La Salle-Aloña Mendi | 78-35 |
| **KADETE NESKAK** | |
| Eskoriatza-Andraitz | 51-17 |
| Bergara | atsedena |

# Eskola kirola

LEINTZ BAILARA

## Gurasoek harmailetatik asko animatzen dutela diote gaztetxoek

*Saskibaloian aritu ziren Intxaurtxueta kiroldegian Eskoriatzako gaztetxoak*

*Neska eta mutilez osatuta zeuden lau taldeak, eta nor baino nor ibili ziren*

*Gurasoak partidua ikustera hurbildu ziren, neska-mutikoak animatu nahian*

Arantzazu Ezkibel

Batzuk lagunartean iristen diren arren, beste batzuk gurasoekin joaten dira euren partiduak jokatzera.

Eskoriatzan ere, guraso ugari inguratu ziren zapatuan gaztetxoen partiduak ikustera. Batzuek txalo eta txalo egiten dute, baina haserretzen direnak ere badaude.

Gaztetxoei galdetu genien ea pozik egoten diren gurasoak harmailetan daudenean, eta gehiengoak baietz esan zuen. Gurasoek asko animatzen dutela esan ziguten Eskoriatzako gaztetxoek. "Nola jokatu behar dugun esaten digute eta gauzak ondo egiten ditugunean asko txalotzen dute", esan zigun mutiko batek.

**ETXERA JOANDAKOAN EZ DUTE HASERRERIK EGITEN**

"Gehienak animatzera etortzen dira. Baloia saskiratzen dugun bakoitzean txalo egiten dute eta horrek asko pozten gaitu", esan zigun beste mutiko batek.

Partiduaren ostean, etxean, zer esaten dieten galdetzean guztiak ados zeuden: "Ondo egin dugula esaten digute", erantzun zuten denek batera.

Eskoriatzako gaztetxoei, beraz, ez die ardura gurasoak partiduak ikustera joatea. Animo eta aholku onak ematen dituztela uste dute.



ARANTZAZU EZKIBEL

**Kurtzebarri 3.** Unai, Ekain, Jon Ander, Xabier, Maite, Maika, Beñat, Ainhoa eta Mikel.



ARANTZAZU EZKIBEL

**S. Teresa eta Luis E. 3.** Cristian, Iker, Iñaki, Josu, Xabi, Gorka, Haritz, Xabi, Eneko eta Cristian.



ARANTZAZU EZKIBEL

**Gazteluondo 3A.** Oier, Aitor, Mikel, Jon , Julen, Ander, Gorka, Josu eta Aitor.



ARANTZAZU EZKIBEL

**Mesedeetako A.M. 3.** Sergio, Andoni, Ander, Dariem, Mikel, Ane, Asier, Jokin eta Josu.

### • GAZTETXOEK GUSTUKO OTE DUTE GURASOAK HARMAILETAN EGOTEA?



**AITOR, GORKA, JOSU ETA JULEN I**

GAZTELUONDO 3A

"Ez digu ardura gurasoak partiduak ikustera etortzea. Asko animatzen dute eta aholku onak ematen dizkigute. Zer egin behar dugun eta baloia nori pasatu esaten digute, eta ondo egiten badugu asko txalotzen dute".



**ANDER ETA JON I**

GAZTELUONDO 3A

"Gure gurasoak ahal dutenean etortzen dira partiduak ikustera. Gehienbat txalotu egiten dute gure jokoa, baina noizean behin aholkuak ere ematen dituzte".



**SERGIO I**

MESEDEETAKO A.M. 3

"Ondo jokatzen dugula esaten didate etxean. Animo asko ematen du ondo egindakoa txalotzen dutenean".



**ANE I**

MESEDEETAKO A.M. 3

"Nire gurasoak ahal dutenean etortzen dira eta ilusioa egiten dit gurasoak harmailetan ikusteak".

# Iruditan



JOSETXO ARANTZABAL

**4x4ko erakustaldia.** Motor burrunba artean gozatu ederra hartu zuten domeka goizean Apotzagara hurbildu ziren ikusleek. 25 bat 4x4 automobil batu ziren prestaturiko sei gunetan erakustaldia egiteko.



IGOR ARRESE

**Ehiza Oñatin.** Angiozar auzoko Mikel Otxoa nagusitu zen atzo San Juan Artian egindako txapelketan. Hogei ehiztarik hartu zuten parte.



PABLO CUEVA

**Mendiko lasterketen saria.** Txalo artean jaso zuen Zuhaitz Ezpeletak barikuan Euskal Mendizale Federazioak Galdakaon egindako X. galan.

Eibar factoring 2006

Aurten ere, Eibarren beherapenen beherapenak antolatu ditugu:
Eibar Factoring 2006.

40 standetan produkturik onenak ikusteko aukera izango duzu otsailaren
16,17,18 eta 19an Armeria Eskolan.
Isasi Kalea 36.

Ez galdu halako aukerarik!!!

jantziak
osagarriak
etxerako ohialak
kirolak
oinetakoak
eta askoz gehiago....

Eibar factoring 2006

EIBAR
CENTRO COMERCIAL ABIERTO
MERKATAL GUNE IREKIA

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2006ko otsailaren 13a

LEHENENGO MAILA

**ANDER JAUSORO** | OÑATIARRA, REALEKO BAZKIDEA

# "Atleticok egin zituen faltak, eta txartelak Realarendako"

Xabier Urtzelai

**Atleticok askoz ere gehiago egin barik irabazi zuen atzo.**

Hala da bai, baina futbolak horrelakoak izaten ditu. Ez dut esango Realak garaipena merezi izan zuenik, baina berdinketa emaitza justuagoa izango zela uste dut. Atleticok kontraeraso polita eginda lortu zuen 1-0ekoa, eta hortxe amaitu zen dena.

**Zelan ikusi zenuen Reala?**

Egia esan behar badut, nahiko txukun. Aspaldian ez bezala, zelaian ondo kokatuta ibili ziren, ordenarekin jokatzen. Lehenengo zatian izan zuten aukeraren bat edo beste, baina bigarren zatian taldeak beldurra hartu zion erasoegiteari. Entrenatzaileak aurrera egiteko apustua egin zuen aldaketekin, baina taldeak ez zuen erantzun. Hori bai, Realaren atzealdera iristen diren baloiek oso arriskutsu izaten jarraitzen dute.

**Faltak eginez geratu zuen Atleticok Reala.**

Telebistan falten kopurua azaltzen zenean sekulako aldea zegoen. Alde horretatik, ez dut esango epailearen lanak markagailuan eragina izan zuenik, baina ez dut uste Novoren golean asmatu egin zutenik, eta Viafara kaleratzea neurriz kanpokoa izan zen. Atletico de Madril taldeak egin zituen faltak, eta Realarendako izan ziren txartelak. Pereak adibidez, falta oso gogorrak egin zituzten eta txartel horia baino ez zuen ikusi.

**Datorren astean Valentzia izango dugu bisitari Anoetan.**

Kontrario gogorra izango da. Talde moduan oso ondo dabiltza jokatzen, eta izen handiko jokalariak dituzte, Aimar, adibidez. Horrekin batera, oso ezaguna ez zen Villa Ligako aurrelari onenetakoa bilakatu da, eta dagoeneko selekziorako ere deitu dute.



AITOR LIZARRALDE

Anoetan ez denean, Aloña Mendi tabernan jarraitzen du Anderrek Reala.

**"Athleticek indarra du, eta zaleak aldeko; horri esker eutsiko diote"**

**Ikustekoa da Alavesen gorakada.**

Benetan harrigarria izan da, bai. Guztiok uste genuen Alavesek aurten egin beharrekoak eginda zituela, entrenatzailea aldatu eta gora egin dute sailkapenean.

Joan zaitez orain Gasteiz aldera ezer esatera.

**Eta Athletic?**

Zapatuan Madrilaren kontrako partidua ikusi nuen, eta ez ziren horren txarto ibili. Indarra daukate, eta zaleen babesa. Horri esker eutsiko diote mailari.

## Harmailatik



# Atleticok kolpez kolpe

Xabier Urtzelai

**Beste behin, errazegi.** Ez gara aspertuko esaten epaileek Realaren kontra erabakiak errazegi hartzen dituztela. Eta atzoko norgehiagoka izan zen ehungarren adibidea. Puentes Leirari oraindik inork ez dio erakutsi proportzionala izatea zer den: Epaileak 24 falta adierazi zizkion Atleticori (eta gehiago izan ziren); eta, hiru txartel hori baino ez zituen adierazi (Molinero, Luccin eta Perea). Kontua da, txartel gorriren bat erakusteko moduko faltak egin zituztela; Luccinek Stevanovic-i egindako faltan, adibidez.

**Ibazaga.** Horri guztiari gehitu, besteak beste, ostikoak emateaz aspertu egin zen Ibagaza eskuak garbi erretiratu zela aldagelara. Datu horiekin guztiekin, proportzionala izatea da Viafarak egindako jokaldi inozoagatik txartel gorria erakustea, eta jarraian Gabik egindako bultzadagatik ezer ez gertatzea.

**Faltak.** Viafararen kanporaketak ez zuen norgehiagoka erabaki. Bai ordea hainbat jokaldi gogorretan epaileak erabaki zorrotzik hartu ez izanak; utzi egin zion Atleticori gogor jokatzen, eta madrildarrek etekin ederra atera zioten horri. Realak ez zuen txanpon berarekin erantzun, eta gainera, hainbat jokalditan inuzente jardun zuten.

**Ostikoka.** Lastima, ondoko erretratuan dagoen Ander Jausorok esandago moduan, Realak gehiago merezi izan zuelako. Atzo, baina, ostikoek ematen zuten garaipenerako bidea, eta Realak bakarra eman zuen ona, Viafarak Petrov-i. Badago futbolariari beste modu batean izendatzeko modua: ostikolaria. Ostikoa zeri eman, hori beste kontu bat da.

**Alaves**

Mendizorrotzako taldeak entrenatzailea aldatzearekin batera gora egin du sailkapenean. Dagoeneko atzean utzi dituzte azkeneko postuak, askoren kalterako.

**Bartzelona**

Valentziaren zelaian galduta (zelako oparia egin zuen Valdesek), Madrilgo gaurko egunkariek esango dute Liga bizirik dagoela. Eta ez, aurtengo Liga Bartzelonarena da.

## Emaitzak eta sailkapenak / Espainiako Liga Txapelketa

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Valentzia-Bartzelona | 1-0 |
| Mallorca-Getafe | 1-1 |
| Alaves-Malaga | 3-2 |
| Espanyol-Racing | 0-2 |
| Celta-Vila-real | 1-0 |
| Betis-Deportivo | 0-1 |
| Atletico-Reala | 1-0 |
| Osasuna-Zaragoza | 1-1 |
| Cadiz-Sevilla | 0-4 |
| Athletic-R.Madril | 0-2 |

**HURRENGOAK**

Deportivo-Zaragoza
Bartzelona-Betis
Reala-Valentzia
Getafe-Atletico
Malaga-Mallorca
R.Madril-Alaves
Racing-Athletic
Vila-real-Espanyol
Sevilla-Celta
Cadiz-Osasuna

**SAILKAPENA**

| | Puntuak | J | I | G | B | GA | GK |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1. **Bartzelona** | **52** | 23 | 16 | 3 | 4 | 53 | 20 |
| 2. **Valentzia** | **46** | 23 | 13 | 3 | 7 | 34 | 19 |
| 3. **R.Madril** | **45** | 23 | 16 | 6 | 3 | 44 | 23 |
| 4. **Osasuna** | **43** | 23 | 13 | 6 | 4 | 29 | 24 |
| 5. **Celta** | **39** | 23 | 12 | 8 | 3 | 25 | 24 |
| 6. **Sevilla** | **38** | 23 | 11 | 7 | 5 | 31 | 21 |
| 7. **Deportivo** | **36** | 23 | 10 | 7 | 6 | 31 | 25 |
| 8. **Vila-real** | **35** | 23 | 9 | 6 | 8 | 28 | 22 |
| 9. **Atletico** | **32** | 23 | 8 | 7 | 8 | 27 | 23 |
| 10. **Zaragoza** | **32** | 23 | 7 | 5 | 11 | 32 | 31 |
| 11. **Getafe** | **30** | 23 | 8 | 9 | 6 | 32 | 29 |
| 12. **Racing** | **27** | 23 | 6 | 8 | 9 | 21 | 16 |
| 13. **Reala** | **25** | 23 | 7 | 12 | 4 | 32 | 44 |
| 14. **Espanyol** | **24** | 23 | 6 | 11 | 6 | 20 | 35 |
| 15. **Alaves** | **22** | 23 | 5 | 11 | 7 | 24 | 36 |
| 16. **Betis** | **22** | 23 | 5 | 11 | 7 | 20 | 32 |
| 17. **Cadiz** | **22** | 23 | 5 | 11 | 7 | 17 | 30 |
| 18. **Malaga** | **20** | 23 | 5 | 13 | 5 | 28 | 37 |
| 19. **Athletic** | **19** | 23 | 4 | 12 | 7 | 25 | 34 |
| 20. **Mallorca** | **19** | 23 | 4 | 12 | 7 | 22 | 40 |

# Kiniela

**KINIELA**

| | | |
|---|---|---|
| 1. | **Betis-Deportivo** | **2** |
| 2. | **Cadiz-Sevilla** | **2** |
| 3. | **Celta-Vila-real** | **1** |
| 4. | **Espanyol-Racing** | **2** |
| 5. | **Athletic-R.Madril** | **2** |
| 6. | **Alaves-Malaga** | **1** |
| 7. | **Mallorca-Getafe** | **X** |
| 8. | **Atletico-Reala** | **1** |
| 9. | **Osasuna-Zaragoza** | **X** |
| 10. | **Numantzia-Lleida** | **1** |
| 11. | **Murtzia-Lorca** | **2** |
| 12. | **Gimnastic-Valladolid** | **1** |
| 13. | **Recreativo-Sporting** | **X** |
| 14. | **Almeria-Hercules** | **1** |
| 15. | **Valentzia-Bartzelona** | **1** |

## Euskal taldeen asteko hamaikakoa



Mendiko eskiak zale asko ditu Oñatin, baina txapelketetan gutxi batzuk besterik ez dabiltza. Aitor Otxoa hasi zen lehenengo mundu honetan sartzen. Laster batu zitzaion Arkaitz Letamendi. Iban beranduago hasi zen, baina bidelagun dute orain ia txapelketa guztietan. Urtarrilean eman zioten hasiera denboraldiari eta maiatza bitartean asteburuoro jantziko dituzte eskiak mendi zeharkaldiak egiteko. Asteburuan, esaterako, Formigalen izan ziren Espainiako txapelketa jokatzen.

**ARKAITZ ETA IBAN LETAMENDI** | MENDI ESKIATZAILE OÑATIARRAK

# "Mendiko eskia egiten dugunondako txapelketak dira dagoen gauzarik seguruena"

Larraitz Zeberio

**Mendia eta eskia batzen dituen kirola egiten duzue. Mendizaleak ala eskiatzaileak zarete?**

**Arkaitz.** Mendi zeharkaldiak egiten ditugu guk, baina eskiekin. Ez gara beste asko bezala mendi gailurretara abiatzen, Himalaiara esaterako. Hori alpinismoa da eta beste maila bat da.

**Txapelketetan ibiltzen zarete gehien bat. Arrisku gutxiago du honek?**

**Iban.** Zalantzarik gabe. Txapelketa batean antolakuntza taldeko jendea joaten da aurretik; arrisku maila kalkulatzen dute, eta beharrezkoa bada, ibilbidea aldatzen dute. Azkenean, txapelketa dagoen gauzarik seguruena da. Helikopteroa egoten da, sorosleak... oso kontrolatuta zaude.

**Gauza asko hartu behar dira kontuan mendiko eskian. Elurraren kalitatea, eguraldi aldaketak, elurjauzien arriskua...**

**A.** Nik neuk ez dut ikastarorik egin, baina dakien jendearekin hasi nintzen irteten eta eurekin ikasi dut. Gero, jakinekoa da, zalantza izanez gero hobe da leku txarretan ez sartzea.

**I.** Interneten informazio asko egoten da, eta arrisku egoera baten aurrean pista inguruetan ibiltzen gara gu.

**Igotzea ala jaistea duzue gustukoen mendiko eskiatzaileek?**

**A.** Igotzea gustuko dut, baina elurra ondo dagoenean jaistea zoragarria da benetan.

**I.** Gertatzen da lasterketetan gauzak bestelakoak direla. Limitera goaz beti. Nekatuta iristen gara gora eta ahal denik eta azkarren abiatzen gara beherantz. Ez ditugu jaitsierak asko disfrutatzen.

**A.** Mendira gure kabuz joaten garenean gozatzen dugu jaitsierekin.

**Aurtengo negua oparoa izan da elur kopuruari dagokionez. Gertu entrenatzerik izan duzue?**

**A.** Aurten ez dugu hemen entrenatzerik izan. Iazkoa urte oso ona izan zen alde horretatik. Hamabost bat egunetan ibili nintzen Aloñan.

**Zuena neguko zaletasuna da. Udan egiten duzue kirolik?**

**A.** Bai. Forman egon beharra dago. Mendiko bizikletan ibiltzen gara, eta korrikan ere bai.

**I.** Negua hurbiltzen denean Arantzazura igotzen gara roller eski izeneko patin luze batzuekin. Iraupen-eskia egiten dutenek erabiltzen dute eta mendiko eskiaren oso antzekoa da.

**Eski estazioak, erremonteak... gustuko dituzue ala ihes egiten duzue?**

**A.** Askotan ez zaigu beste erremediorik gelditzen. Eguraldi txarra edo elur-jauzi arriskua dagoenean pista eremuetan ibiltzen gara. Dagoen gauzarik seguruena da. Baina ahal den guztietan joaten gara mendira.

**I.** Ikasteko, gainera, dagoen gauzarik onena da. Mendiko eskia egiteko eskiatzaile ona izan behar duzu. Teknika oso garrantzitsua da jaisteko eta hori pistetan ikasten da.

**A.** Mendia ez da pistak bezalakoa. Alde batetik, elurra zapaldu gabe dago. Bestetik, alde batean elur biguna duzu, beste batean izoztuta dago... elurra aldakor egoten da. Beraz, garrantzitsua da nondik nora zabiltzan jakitea.

**Beste eski modalitaterik egiten duzue?**

**I.** Ez. Probatu izan ditut iraupen-eskia, snowboard-a... baina mendiko eskia da gehien gustatzen zaidana.

**A.** Niretzat ere mendiko eskiak ez du parekorik. Kirol asko probatu ditut, eta mendiko eskia oso gogorra da, baina disfrutatu ere asko egiten da.

**Bereziki gustuko duzue lekuren bat mendiko eskia egiteko?**

**A.** Alpeak, Pierra Menta deitzen den ingurua. Bitan izan naiz eta zoragarria da zeharkaldia.

**I.** Bestela, hemen Pirinioetan, askotan joaten gara Luz aldera. Niri Jaka ingurua ere asko gustatzen zait. Askotan joaten naiz.


L.Z.
Zaletasun bera dute bi anaiek. Anderrek 29 urte ditu eta Ibanek, berriz, 27.

## Debagoiendarrak Espainiako txapelketan, Formigalen

**Atzo, domeka, jokatu zen Formigalen 24. Club Pirineos zeharkaldia. Bertan izan ziren Oñatiko Letamendi anaiak eta baita Aitor Otxoa ere. Bergaratik Joxu eta Arkaitz Arana anaiak joan ziren. Gustura ibili ziren eguraldia lagun izan zuten eta. Arkaitz Letamendi izan zen denen artean azkarrena, 15. sartu zen helmugan. 1.600 metro igo zituzten proban.**


JOXU ARANA

• PILOTA, BINAKAKO TXAPELKETA



JOSETXO ARANTZABAL

### OLAIZOLA II.A ETA ZEARRA FINALERDIETAN

Olaizola II.ak eta Zearrak finalerdietarako txartela eskuratu zuten atzo Xala eta Goñi III.ari 22-8 irabazi ostean. Bikote gorriak ez zuen inolako arazorik izan partidua irabazteko. Olaizolak 11 tanto egin eta 5 galdu zituen eta Zearra atzelariak, berriz, 2 galdu eta batere ez zuen egin.

• ARETO FUTBOLA, NAZIONAL B MAILA


JOSETXO ARANTZABAL

### TENTSIO HANDIKO PARTIDUA ESKORIATZAN

Eskoriatza eta Zierbena taldeen arteko zapatuko neurketa istilutsua izan zen. Hirunako berdinketarekin amaitu zen partidua, baina epaileek ertzainen laguntza behar izan zuten Intxaurtxuetatik irteteko. Zierbenatik jarraitzaile asko etorri ziren eta zakar jokatu zuten behin baino gehiagotan.

• ARETO FUTBOLA, 1. MAILA


JOSETXO ARANTZABAL

### ALOÑAK 1-2 GALDU ZUEN ETXEAN

Partidu gogorra jokatu zuten Aloñak eta Bar Pari- Berrik Zubikoa kiroldegian. Partiduko lehenengo gola Sergik sartu zuen 2. zatiko 10. minutuan. Bost minutura, jokaldi nahasi batean, berdinketaren gola etorri zen, eta partidua amaitzear zela 2. gola egin zioten Aloñari.

# KULTURA Aisialdia eta Zerbitzuak

• Dominak ekarri dituzte etxera ibarreko piano ikasleek Andoaingo jaialditik | 22
• Ipuingintzako Iparragirre saria jaso du Roberto Izagirre Bergaran bizi den eibartarrak | 22

Arco azokaz eta han erakutsi dituen lanez aritu gara Manu Muniategi bergarararrarekin | 26

**DISKO BERRIA AURKEZTU ZUEN FLY SHIT LAUKOTEAK**



JOSETXO ARANTZABAL

Grabaketa prozesu luzearen ostean, zapatuan aurkeztu zuten Fly Shitekoek bigarren diskoa Gaztetxean.

**HARD CORE** | HAMAR URTE BETE DITU BERGARAKO BANDA EZAGUNAK

# Ibarreko hard corearen ondarearen jabe Bergarakoak direla argitu zuten

*Gaztetxea lagunez beteta eta forma bikainean, disko berria aurkeztu zuten Fly Shit taldekoek zapatuan. Hamar urte daramatzate jotzen, baina indartsu jarraitzen dute*

Jon Berezibar

*Bizitza…baina nola bizi* CD berriaren grabaketa luzea izan da, baina azkenean kalean dute bigarren diskoa Bergarako Fly Shitekoek. Abesti berriak jendaurrean aurkeztu eta, bide batez, laukoteak 10. urteurrena ospatzeko, lagunez jositako jaialdia prestatu zuten zapatu gauean gaztetxean. Bergara da ibarreko hard corearen bihotza, eta horretan zeresan handia izan dute Fly Shitekoek urte askoan. Eurekin batera, Azkaiter Peloxek, taldeko gitarra-jotzaile ohiak, eta Supercoolsek bete zuten gaueko kartela. Lagunarteko gaua izan zen, hamarkada luzean batutako jarraitzaileekin eta betiko adiskideekin disfrutatzekoa. Gaua irekitzeaz Azkaiter Pelox arduratu zen, Unai Azkarateren *alter egoa*. Berak giroa berotu eta berehala egin ziren oholtzaren jaun eta jabe Supercools taldekoak. Giroa pil-pilean, gaueko omenduen txanda iritsi zen.

**ABESTI BERRI UGARI**

Fly Shit taldeak gorabeherak izan baditu ere, disko berrian ez dute inola ere maila jaitsi, eta zuzenekoan forma bikainean daudela erakutsi zuten. Bergara eta hard core hitzak sarri batzearen erantzule izan da banda hau eta horren zergatiak erakutsi zituzten zapatuan, berriz ere. Hard corearen iturri klasikoenetik edaten dute, baina bestelako eraginei ere tartea uzten diete euren musikan. Soinu freskoa eta indartsua aurkeztu zuten zapatuan, hein handi baten abesti berrietan igartzen zena. Disko berria osorik jo zuten eta baita kaleratu gabeko beste abesti pare bat ere. Zelan ez, klasikoek euren lekua izan zuten kontzertuan. Diskoa kaleratu ezkero, abesti berriak jotzen dituzten bigarren kontzertua izan da azken hau, baina ziurtasunez eta konfiantzaz eutsi zieten doinu berriei.

> Abesti berri asko borobilak dira eta sostengu ederra dira zuzenekoetan
>
> Fly Shitekoak medio, hard core-a eta Bergara sarri batu izan dira

Azkarateren gitarraren hutsak indarra kendu ahal ziela uste zutenak, gainera, oker zebiltzan, taldeak ohiko irmotasunarekin jarraitzen du-eta. Disko berria, gainera, abesti borobilez josita dago eta hori sostengu ezin hobea da zuzenekoetarako. Grabaketa luzea izan zen baina emaitzarekin gustura egon daitezke, euli kaka izenean bakarrik daramate-eta lau hauek.

## DISKO BERRIA AURKEZTU ZUEN FLY SHIT LAUKOTEAK

### • LAGUNARTEKO GIROAN OSPATUTAKO JAIA



**SAGARDOTEGIKO MENUA.** Horrela izendatu zuten Supercoolsekoek zapatuan zerbitzatutakoa. Badute bergarar hauek aparteko zuzenekoak egitearen ospea, bai behintzat inguruetan egiten den hard coreari dagokionez. Hau hala izan edo ez, zapatuan behintzat agerian geratu zen jarraitzaile talde polita dutela eta sekulako gaua izan zutela eurekin. Txiki geratu zitzaien gaztetxeko oholtza.




**'TXORI'-REN KARTELAK.** Taldearen ibilbidea jasotzen duten kartelak ipini zituzten Gaztetxean erakusgai, 100 aletik gora, *Txori* artista eta lagun santurtziarrak egindakoak. Nortasun propioa eta originaltasun nahikoa daukate haren lanek eta *Bizitza... baina nola bizi?* diskoko azalaren diseinua eta barruko ilustrazioak ere bereak dira. Arreta pizteko modukoak dira *Txori*-ren lanak.




**'BIZITZA... BAINA NOLA BIZI?'.** Osloko hard core-punk banda bati omenaldia eginez bataiatu dute Fly Shitekoek disko berria, euren bigarrena. Luze jo die grabaketak, Eloy bateria-jotzailearen hutsa tartean, baina azkenean, lan fina kaleratu dute bergararrek. Interneten edo bailarako herrietako hainbat tabernatan aurki daitezke diskoak (Ekaitz tabernan Arrasaten edo gaztetxeetan oro har).

**ANDER ELORTZA** | GITARRA-JOTZAILEA

## "Lagun artean aurkeztu genuen disko berria"

J. B.

**Domeka goizean harrapatu genuen Ander gitarra-jotzailea, aurreko gaueko jaialdiari buruz galdetzeko. Lagunarte giro bikainean aurkeztu zuten diskoa.**



JOSETXO ARANTZABAL

**Kontzertu berezia zapatukoa, ezta?**

Bai, batez ere lagunartean egin genuelako; han zeuden Unai Azkarate, Suprecoolsekoak, ia talde anaia dena, eta beti alboan izan ditugun adiskideak.

**Hamar urte oholtza gainean eta oraindik urduri?**

Aurkakoa gertatuko balitzaigu zerbait oker doalako seinalea izango litzateke; beti sentitzen duzu zerbait jotzen hasi baino lehenago. Hala ere, zapatuan lagun ugari zegoen gaztetxean eta horiek hanka sartzeak lehenago barkatzen dizkigute eta gustura ibili ginen.

**Aurkezpenaren ostean zer asmo?**

Disko berria jo eta kontzertuak ematen jarraitzea. Hurrengo, datorren asteburuan, Soraluzen egingo dugu eta hortik aurrera ere hainbat emanaldi ditugu dagoeneko lotuta. Diskotik diskora denbora asko igaro bada ere, guk zuzenekoekin jarraitu dugu eta asmo berari eusten diogu. Gure kabuz atera dugu diskoa eta hura zabaltzeaz eta promozioaz ere gu geu arduratzen gara. Diskoa ez da dendetan aurkitzen; taberna eta gaztetxeetan ipini dugu salgai edo internet bidez ere jar daiteke gurekin harremanetan.

> "Tabernetan edo Internet bidez eskura daiteke disko berria"

**UNAI AZKARATE** | GITARRA-JOTZAILE OHIA

## "Nik ere disfrutatzen dut eurak zuzenean ikusten"

J.B

**Iaz utzi zuen Unaik taldea beste proiektuetan burubelarri murgildu ahal izateko. Hala ere, disko berriaren grabaketan hartu du parte eta gertutik jarraitzen du lagunen lana Unaik.**



JOSETXO ARANTZABAL

**Lagunak ikustean, barneko harra zaztaka hasten zaizu?**

Ez, gustura eta disfrutatzen ikusten ditut-eta. Baina gauza akustiko eta lasaiagoak egin ahal izateko utzi nuen taldea. Gauza intimoagoak egiten ditut orain eta bestelako musikarekin, funkya besteak beste. Horregatik utzi nuen taldea eta gelditu barik nabil azkenaldian Mahaster River izeneko proiektuarekin eta Azkaiter Peloxekin. Bestelako planteamendu bat da nirea, baina orain eurak ikustean nik ere disfrutatu egiten dut eta bestela noizean behin igotzeko eskatzen didate. Beti nabil inguruan, ikusten ez bada ere CDak saltzen laguntzen-edo. Autoekoizpenak askatasuna ematen du, baina atzetik lan asko egin behar da. Gogoarekin, baina, atzoko moduko jaialdiak erraz antolatzeko aukera egoten da.

**Zapatuko lagun giroarekin ere disfrutatuko zenuen, ezta?**

Batzuk sagardotegitik bueltan zetozen, beraz ez zen girorik falta izan, inondik inora. Batuko ginen 200 bat lagun, gutxi gorabehera. Ni berehala erretiratu nintzen etxera, baina uste dut beste guztiak ez zirela nire moduko formal ibili.

> "Beti nabil euren inguruan, ikusten ez bada ere CDak saltzen laguntzen"

**JAIALDIA** | BERTSIOZ JOSITAKO KONTZERTUAK EGIN ZITUZTEN OÑATIKO TALDEEK

# 'La balada de la venganza' film laburra finantzatzeko jaialdia

*Urrian filmatu zuten Kepa Aranburu oñatiarraren westerna eta gastuekin laguntzeko kontzertu berezia antolatu zuten Gaztelekuan*

Jon Berezibar

Zapatukoa ez zen izan *La balada de la venganza* Oñatin proiektatzen zuten lehenengo aldia, baina Gaztelekua jendez lepo bete zen Kepa Aranbururen lana ikusteko. Gutxiagorako ez da, gainera. Oñatin filmatuta, bertako paisaiekin eta jende ezaguna tartean, aretoaren sarreraraino pilatu zen jendea *western* giro bitxiko metraje laburreko filma ikusteko asmoarekin.

Protagonistak euren buruak pantaila handian ikusteko irrikaz, eta adiskide nahiz ezagunak lagunak noiz agertuko zain, film laburreko lehen sekuentziatik isiltasun osoa zen aretoan. Lasaitasun hori, baina, berehala hautsi zen aktoreek lehen esaldia esaterako, ahopeko barretxoak entzuten hasi ziren-eta. Istorioak berak ere bat baino gehiago harrituko zuen, Belarreko inguru berde eta menditsuek ez daukate-eta Coloradoko arroilaren antz larregirik. Baina Keparen filmean ez ziren ez sheriffa (Martxelo Rubio aktore ezagunak antzeztua) ez bidelapur alprojak falta izan.

Urrian grabatu zuten filma Kepak eta lagunek, herriko inguruetan. Bartzelonan zinemagintza ikasten dabil Kepa eta eskolarako proiektu gisa aurkeztu zuen *La balada de la venganza*.

Film emanaldia amaitu eta gero, kontzertua egin zuten herriko taldeek, Kepari filmaketa gastuekin laguntzeko asmoz. Giro itzela egon zen zapatu gau guztian Gaztelekuko jaialdian. Aretoa jendez gainezka jartzea lortu zuten, bai filma ikusteko zein osteko kontzertuetarako ere.

**BERTSIO KONTZERTUAK**

Jaialdi berezia izanda, Oñatiko bandek ere izaera berezia hartu zuten emanaldietarako. Herriko talde ezagunek hartu zuten parte emanaldian, baina bestelako nortasunekin. Amonalekoek, adibidez, sexuz aldatu eta Aitonals izenarekin jo zuten; eta Show Business eta Golpe de Estadokoek elkarrekin batu eta Los Txuloputas moduan bataiatuta jo zuten zapatuan. Biek ala biek bertsio ezagunekin osatu zuten emanaldi berezia. Azkenak jotzen, berriz, Potemkin eta Sharon Stonerrekoak izan ziren. Azken hauek, gainera, gonbidatu berezia izan zuten oholtza gainean, Kepa Aranburu bera igo zen abestera-eta.



JOSETXO ARANTZABAL

Los Txuloputas izan ziren filmaren ostean jo zuten lehen "alprojak".

## Sheriffa eta bidelapurrak, giro txantxikuko *western*-ean

**Oñatin joan zen urriaren hasieran filmatutako metraje laburreko filma da Kepa Aranburu oñatiarraren *La balada de la venganza*. Kamera ostekoez gain, gainera, papertxo bat ere egiten du; baina western honetako protagonista Martxelo Rubio aktore ezaguna da. Belarren eta inguruetan grabatua, gainontzeko aktoreak txantxikuak dira; tartean dira Unai Perosterena, Jon Ander Jaka eta Ramon Miranda.**



# Dominekin itzuli ziren Bergarako eta Arrasateko piano-jotzaileak Andoaindik

Monika Belastegi

Euskal Herriko bostehun inguru piano ikaslek hartu zuten parte zapatuan Andoaingo Bastero kulturgunean egindako piano jaialdian. Ibarreko ordezkariak ere han izan ziren; Bergarako eta Arrasateko musika eskoletako ikasleak, hain justu.

**GUZTIEK EKARRI DUTE DOMINA**

Bergaratik 12 ikasle joan ziren: bederatzik goizeko saioan hartu zuten parte –12 urtera artekoen mailan eta bakarkako lana egiten–, eta hiruk arratsaldekoan –15 urtera artekoen mailan eta bakarka–. Goizekoek zilarrezko domina jaso zuten opari eta arratsaldekoek, berriz, bi zilarrezko eta brontzezko bat.

Arrasateri dagokionez, hango musika eskolako 10 ikaslek hartu zuten parte jaialdian: bostek goizean –12 urtera arte eta bakarkako lanean– eta urrezko domina bat eta lau zilarrezko jaso zituzten. Arratsaldeko saioan beste bostek jardun zuten –15 urtera arteko mailan, bakarka– eta hor urrezko domina bat, zilarrezko hiru eta brontzezko bat jaso zituzten ikasleek.



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Ume guztiek eroan zuten domina etxera jaialditik.

# Ipuingintzako Iparragirre saria Roberto Izagirrerentzat

Monika Belastegi

Roberto Izagirre bergararrak jaso du Urretxu eta Zumarragako udalek antolatzen duten Iparragirre saria euskarazko ipuingintzaren arloan. *Basurdearena* du izena Izagirreren lan sarituak. Espainiako Gerra Zibila lekutzen du euskal baserri giroan, gerraren eragin krudela belaunaldiz belaunaldi nola hazi eta piz daitekeen azpimarratuz. Luis Padron epaimahaiko kidearen esanetan: "Gerrak, tamalez, ez dira inoiz amaitzen, hori esatera dator estilo aberats, sendo eta dotorez Roberto Izagirre".



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Roberto Izagirre, Enrique Iparragirre eta Oier Guillen (poesia euskaraz saria).

**ELGETA** | JAZINTO RIVAS 'ELGETA' SOINU-JOTZAILEARI OMENALDIA EGINGO DIOTE ELGETAN

# 'Elgeta' maisuaren musika partituretan batzen ari da Trikitixa Elkartea

*Jazinto Rivas 'Elgeta' jaio zela ehun urte bete direla eta, maiatzean omenaldia egingo dute*

*Lajari soinua jotzen irakatsi zion 'Elgeta'-k "eguneko bost duro, mantenua eta 3 purogatik"*



EUSKAL HERRIKO TRIKITIXA ELKARTEA

Jauregi, Zialtzeta, Maltzeta, *Elgeta* (hirugarrena eskumatik) eta Sakabi.

Marijo Deogracias

"Gizon hura izan ez balitz, gaur hemen trikitilaririk ez zen egongo". Sakabiren berba hauek jaso zituen Koldo Izagirrek *Elgeta, sasiaren sustraiak* liburuan. Han esaten denez, "Trikitilari guztiek aitortzen dute Jazinto Rivasen garrantzia soinu txikiaren bilakaeran eta jarraipenean". Agian horregatik, eta bere jaiotzaren mendeurrena bete delako, aurten omenaldia egingo dio Euskal Herriko Trikitixa Elkarteak *Elgeta*-ri. Adolfo Jainagak kontatu digunez, "bera izan zen lehenengo maisu profesionala. Sasoi hartan soinua jotzen ikasten zuenak berarendako edo etxekoendako ikasten zuen. Ez zen askorik apreziatzen; soinu txikia ez zen osoa, infernuko hauspoa zen, konnotazio negatibo asko zituen eta ez zen erakusten. Gero ezagutu ditugun trikitilari handi guztiei irakatsi zien soinua jotzen *Elgeta*-k".

**BIZITZA TRAGIKO SAMARRA**

Jazinto Rivas 1964ko martxoaren 29an hil zen, Miserikordian. Badira, ordea, bere heriotzaren gainean bertsio trajikoagoak; horietako bat Izagirrek biografian jasotakoa: berotzeagatik erreta hil zela esaten den hura. Jainagak esan digunez, "honekin guztiarekin film bat egin daiteke. Bizitza tragikoa izan zuen eta heriotza ere horrelakoa izan ei zuen. Eibarren ere bizi izan zen sasoi baten eta herriko pentsaera ondo ezagutu zuen, industrializatutako herriaren pentsaera sozialista. Kaleko mentalitate liberal hura ez zegoen ondo ikusia euskaldun-nazionalismotik eta horren kontura ere legenda badu *Elgeta*-k".

Kontuak kontu, *Elgeta*-k soinu txikiari eskainitakoa aitortzeko modua izango da maiatzean Elgetan egingo den omenaldia. "Trikitilariek esaten dute hark jotzen zuena berea zela esaterik ez dagoela. Askotan pieza zatiak elkarrekin lotzen zituen eta soinura ekarritako txistu, danbolin eta dultzainaren piezak zirenez, egokitu ere egin behar izaten zituen. Baina hain justu horixe da bere marka", azaldu digu Jainagak.

Omenaldiko eguna erabat zehaztu barik dagoen arren, maiatzean izango dela baieztatu digu Euskal Herriko Trikitixa Elkarteko kideak. Ordurako kalean izango dira Elgetaren hamalau piezen partiturak, jotzeko era zahar hura erakusteko.

**ADOLFO JAINAGA** | TRIKITIXA ELKARTEKO KIDEA ETA OMENALDIKO ANTOLATZAILEA

## "Jotzeko era zaharra erakusten du 'Elgeta'-k"

M.D.

**Eibartar honek hamabost urte daramatza Elgetan soinu eskolak ematen. Berari egokitu zaio *Elgeta*-ren piezak paperean jasotzea maiatzean egingo duten omenaldira begira.**

***Elgeta*-ren ze pieza ari zara paperera ekartzen?**

*Elgeta, sasiaren sustraiak* liburuarekin batera argitaratu zen CDan jasotako piezak dira. Pepe Andoain soinu-jotzaileak bere etxean egindako grabaketa baten jasotakoak; 1960 urtearen bueltan jasotakoak.

**Eta, nolakoak dira pieza horiek?**

Grabaketa bera ez da batere kalitate onekoa eta lan ugari eman dit partiturak ateratzeak. Dena dela, lehengo jotzeko era zaharra erakusten dute *Elgeta*-ren piezek. Guk jotzen ditugunak dira, baina hark beste modu baten egiten zuen. Soinu zaharrak ematen dituen tonalidade guztiak dominatzen zituen eta grabaketak zahar kutxu hori badauka.



Adolfo Jainaga.

**Noiz kaleratuko dira partiturak?**

Trikitixa Elkartearen *Soinua paperean* egitasmoaren barruan argitaratuko dira, maiatzean egingo dugun omenaldirako.





ANTZERKIA | **'NASDROVIA TXEJOV!' EUSKARAZ**

# Tonu arina erabiliz istorioen sakontasuna agerian uzten dute Chejoven ipuinek

**Non.** Arrasateko Amaia antzokian.
**Iraupena.** Ordu eta erdi pasatxo.
**Taldea.** Vaiven Producciones.

Jon Berezibar

Anton P. Chejov idazlea eta honen ipuinen antzezpena erakutsi zuten atzo Vaiven Producciones antzerki taldekoek Amaian. Hainbat historia nahasten dira eta Errusiako burgesia eta langile klasearen apaltasuna agerian lagatzen dituzte, tonu arina erabiliz eta historien sakontasuna ezkutatu barik.

Egokitzapen oso entretenigarria egiten dute Vaivenekoek *Nadrovia Txejov!* antzezlanean. Ez dago protagonista bakarra eta horrek ere arintasuna ematen dio lanari. Alderdi tragikoa eta komikoa ondo harilkatzen ditu Fernando Buernes zuzendariak.

**ESZENOGRAFIA EGOKIA**

Ez dute medio askorik erabiltzen *Nadrovia Txejov!* antzezlana taularatzeko. Elementu oso gutxirekin moldatzen dira aktoreak taula gainean eta eszenografiaren erabilera inteligentea egiten asmatzen dute. Lau elementurekin sakonera handiko lana gauzatzen dute, apala, baina harrapatzen zaituena.

**EUSKARAZKO EMANALDIA**

*Nadrovia Txejov!* euskaraz antzeztu zuten Vaiven producciones taldekoek. Ez zuten antzokia betetzea lortu, baina euskaraz izateko jende dezente animatu zen Amaiara.

# Bosniako umeen alde abestu zuten zapatuan Arrasateko parrokian

*Juan Luis Anasagasti tenoreak eta Jaime L. Butron piano-jotzaileak egin zuten emanaldi lirikoa. 450 euro inguru batu zuten*

M.B.

Euskal Herriko eta Italiako doinuez eta zartzuela eta opera pasarteez baliatu ziren zapatuan Juan Luis Anasagasti tenorea eta Jaime L. Butron piano-jotzailea. Bosniako Bjelave umezurtz etxearen aldeko emanaldia polita izan zen, doinu ezagunez jantzia, eta hori entzuleak gustura egoteko amuetako bat izan zen. Bestea, Juan Luis Anasagasti tenorea.

Doan izan zen sarrera, baina irteeran kutxa bi jarri zituzten emanaldira batutako entzuleek borondatea lagatzeko. 450 euro inguru batu zuten.

**UMEZURTZ ETXE BATEN ALDE**

Bilboko Maitasun elkartearen ekimenez antolatutako kontzertua izan zen San Juan Bataiatzailearen parrokian egin zutena. Juan Luis Anasagasti tenorea da elkarteko presidentea eta hark esan zigunez, "oso pozik" dago Arrasaten jasotako erantzunarekin eta laguntzarekin. Bestalde, azaldu zuen Sarajevo hiriaren erdialdean dagoen Bjelave umezurtz etxera bideratuko dutela batutako dirua. Besteak beste, gerraren ondorioz eraikinak jasotako kalteak konpontzeko erabiliko dute eta etxe horretan dauden umeak jantzi eta jaten emateko.



JON BEREZIBAR

Askotariko errepertorioa egin zuten, erraz entzutekoa.



AURKEZPENA | **'ANTZUOLAKO TOPONIMIA' AURKEZTU DU KRISTINA PAVOK**

Euskaltzaindiaren onomastika batzordeak batzarra egin zuen egubakoitzean Antzuolan. Aitzakia, Kristina Pavoren *Antzuolako Toponimia* liburu-aurkezpena. Prentsaren aurrean egindako aurkezpenean, Jose Luis Zabalo alkatea, Andres Iñigo euskaltzaina eta Iratxe Lasa Onomastika batzordekide eta lanaren koordinatzailea izan zituen lagun. Pixka bat urduri, baina egindako lanaz harro agertu zen Kristina Pavo antzuolarra.



ORGANO KONTZERTUA | **JOSE ENRIQUE AYARRAK JO ZUEN**

Organo Erromantiko jaialdiaren bigarren emanaldia izan zen zapatuan, Bergarako San Pedro parrokian. Jose Enrique Ayarra organo-jotzaile aragoiarrak egin zuen emanaldia parrokian batutako entzuleen aurrean. Zazpi lanez osatutako errepertorioa egin zuen organo-jotzaileak. Datorren zapatuan izango da zikloko azkeneko emanaldia: Oscar Candendo organo-jotzaileak eta Easo abesbatzak egingo dute. | A.G.

# Ziorla Autoak

PEUGEOT

Zabaldu berria
Salmenta eta tailer zerbitzua

Musakola auzoa 21 ( Roneo ondoan ) ARRASATE
Tel: 943 77 01 44





ASTELEHENEKO GOIENKARIA
2006ko otsailaren 13a

Estatuko beste hamabost artistarekin batera, Manu Muniategiandikoetxea bergararra Espainiako artista gazteen erakusketa baterako aukeratu dute. Arcon, Madrilen egiten den arte azokan, egongo da erakusgai bere obra eta tartean, bere lanen artean aukeratutako 4x3 metroko instalazio handia. Egubakoitzetik dago Manu Madrilen, eta nahiz eta galerien salerosketen kontua arrotz egiten zaion, gainerako artistekin egoteko aprobetxatzen du Arcoko aukera.

**MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA** | ARTISTA

# "Badago mugimendua; galeristak irribarretsu ibili dira lehen egunetik"

Jon Berezibar



ASTELEHENEKO GOIENKARIA

Manu, Espainiako artista gazteen erakusketarako aukeratu duen *Tartean* izeneko obraren parean.

**Aurtengo azokan txikikerietarako ez duzu tarterik utzi, lan nahiko berezia aurkeztu duzu, ezta?**

Azokaren 25. urteurrena delaeta antolatutako erakusketa berezi baten 4x6 metroko espazioa utzi didate eta bertan egin dut instalazio bat. Eskultura bat da berez, baina espazio horretan kateatuta geratzen da, eta aldamenean, mural baten antzera, 3 metroko koadro bat ipini dut. Objektu bakoitzak espazio hori hartu behar du, arkitekturara-edo eraldatu. *Tartean* izena ipini diot, hori zen-eta nire ideia; espazio horretan gertatutako pinturaren eta eskulturaren arteko harremanak arkitekturara pasatzen badira, ate baten-edo erdi trangatuta geratzen den objektu bihurtzen dira. Bolumen handikoa da, eta Arcon ez da ohikoa hori, baina azkenean sartu da eta oso aukera polita izan da.

**Ez zara heldu berria Arcora, makinatxo bat urte daramazu joaten. Asko aldatu dira gauzak?**

Zehazki, etorri naizen hamargarren urtea dela uste dut hau. DV galeriarekin hasi nintzen etortzen eta orain Espacio Minimokoekin nago. Azoka, nire moduan, asko aldatu da ordutik. Jendea zure obra ezagutuz doa, jarraitzen zaituzte, eta azkenean, hori guztia normaltasun batean sartzen da. Nik ez diot hamargarren urtea izateari garrantzia berezirik ematen, bost urte barru hamabost izango dira eta hemen jarraitzen badut gauzak berdinberdin egiten segituko dut.

**3.000 artistak baino gehiagok erakusten dituzue lanak. Zaila da norbere tokia aurkitzea azoka itzel horretan?**

Hau ez da artisten feria bat, galeriena baizik. Galeria bakoitzak urtebetean egindako lana erakusten du, eta guretzat urtero egiten den jai baten modukoa da. Galeriek euren azoka egiten dute eta artistok harremanak lantzen ditugu, etorkizuneko erakusketak lotu eta hori guztia.

**Hala ere, salmentek garrantzia izaten jarraitzen dute.**

Jan egin behar da eta oso garrantzitsua da saltzea. Azkenaldian, gainera, Arcorekin oso gauza berezia gertatzen ari da: askok urtean zehar galeriek zer eskaintzen duten ikusten dute, baina Madrilera, Arcora, etortzen dira erostera. Ez dakit hemen hainbeste erosketa kontzentratzea ona edo txarra den. Urtean zehar erakusketa asko egiten dira eta hona ez dira denak heltzen. Arcon gauza gehiago ikusi eta konpara ditzake jendeak, baina artista bakoitzak bizpahiru lan aurkeztu ohi ditu azokan eta ekartzen ez diren lan on eta interesgarri asko ere badago.

**Kontuan hartzekoa izango da, era berean, Estatu mailan gero eta gehiago inbertitzen dela artean?**

Arcora iritsi nintzenean sektorea krisian zegoen eta hori azken urteetan gainean ibili izan dut. Hala ere, aurten jendearen aldetik poztasun bat-edo hasi da igartzen, galeristak irribarretsu daude lehenengoko egunetik eta horrek gauza asko esan nahi ditu, mugimendua badagoela. Nik, egia esan, beti saldu izan dut zerbait, baina aurten badago orokorrean zerbait, puntu gorri asko ikusi ditut aurten obren alboan, saltzen den seinale.

**Eta zuk dagoeneko jaso duzu puntu gorririk?**

Bai, ez aipatutako obra handi horrengatik, baina bai galerietan dauzkadanengatik. Galerien atzealdean standa dago eta nire beste obrak han daude katalogoarekin. *Tartean* izeneko obra, amu bezalakoa da eta amu horrek eroaten du jendea atzeko standera. Eta han egin dut salmenta. Aurten ezin kexatuko gara.

**Eroso sentitzen zara zure artea salmenta-gai soil moduan ikusterakoan?**

Gure mundua estudioa eta erakusketak dira, eta hau gauza berezia da. Behin gaueko bederatzietan, Arcok ateak ixten dituenean, afariak egiten dira eta afalosteak ere oso garrantzitsuak dira gainerako artistekin harremanak sakontzeko; han egotea garrantzitsua da.

**Zeuk, zure obretan, sarri beste artista batzuen lanak hartzen dituzu abiapuntutzat. Zeri ematen diozu garrantzia, artista izateari ala obrari berari?**

Obren originaltasunaren eta autoretza teoriaren inguruan bere garaian maisu bat izan nuen: Atxaga. *Obabakoak* liburuan askotan barre-edo egiten du ea autorea nor den, obraren egilea ala irakurlea, nork ematen dion zentzua testuari, autorea baino obra dela garrantzitsua azalduz. Diskurtso horretan egiten ditu galderak; non hasten eta non bukatzen da originaltasuna? Ni harekin nago, ez dit ardura jendeak kopiatu egin dudala esatea. Nik egiten dudana egiten dut eta han dago ikusgai eta kito. Kippenbergerrek egiten zuen moduan, bere lagunen obretatik, mitoa hautsiz. Autoretzaren kontuak ez du ezertarako laguntzen, negatiboa da. Nik ikasleei beti galdetzen diet: laguntzen du horrek?, bada, kasurik ere ez. Niretako hobea da nondik datorren ikustea, barrenak agertzea, ez dut egiletzaren magia horretan sinesten.

**Abiapuntu moduan pintura ere izan ohi duzu. Ez al dago diziplina hau azkenaldian arte garaikidean gutxietsia?**

Oreka batera heldu dela uste dut eta denetarik aurki daiteke aurten. Urte batean asko ikusi zen pintura, eta hurrengoan instalazioak izan ziren nagusi, edo argazkilaritza. Orain orekatuta dago guztia, une lasaia da, dena ondo saltzen ari da. Bideoak ere asko ikusten dira eta oso ondo saltzen dira. Eta bestelako hegemoniarik ez dago, nahiz eta pinturak beheraka egin duela egia izan. Denentzako dago tokia aurten.

"Askok, galerietan erosi beharrean, azoka egin arte itxaroten dute obrak eskuratzeko"

"Obra da autorea da garrantzitsuagoa. Egilea ala irakurlea da obrari zentzua ematen diona?"

"Puntu gorri asko ikusi ditut aurten obren alboan, saltzen ari diren seinale"

"Orekatu egin da eskaintza aurten, eta argazkilaritza, pintura... denetarik dago"

# Arrasateko 60 umek pobreziaren gaineko lanak ipiniko dituzte erakusketan

*'Mundua zeuk margotu' da erakusketaren izena, eta herriko 8-11 urte bitarteko umeek egin dute, Elizak antolatuta*

Leire Kortabarria

Arrasateko 60 bat umek egindako buztinezko lanak eta marrazkiak ipiniko dituzte Mundua zeuk margotu erakusketan. Bihar, martitzena, zabalduko dute eta egubakoitzera arte egongo da zabalik Monterron jauregian. Ume horiek katekesira doazen 8-11 urte bitartekoak dira. Musakola, Santa Teresa, San Frantzisko eta San Juan parrokietako umeak dira, katekesiko 3., 4. eta 5. mailetakoak.

Erakusketa Hirugarren Munduaren egoerarekin kontzientziatzeko egin dute. Iparraldearen eta hegoaldearen arteko desberdintasunak irudikatu dituzte umeek euren lanetan. Elizbarrutiak gurasoak eta, oro har, herritar guztiak gonbidatzen ditu erakusketara.

**EKUADORKO BEGIRALEA**

Hiru bat astean, tailerretan lan egin dute katekesiko umeek Pablo Sanaguano begirale ekuadortarrarekin. Hirugarren Munduko herrietako egoera azaldu die hark umeei, hauek kontzientziatzeko beste herri pobreago batzuen egoerarekin. Horretarako, adibideak erabiltzen zituen. Hala, Espe Lizarraldek, katekistetako batek, hauxe gogoratzen du: "Umeek esaten zioten arkatz txikiak bota egiten zituztela; berak arkatza hartu eta marrazki eder bat egiten zuen, eta esaten zien berari arkatz hark askotarako balio ziola". Erakusketa osatzeko, umeen lana erakusten duen bideoa emango dute.

Pablo Sanaguanok Euskadi osoan egin du lan horrelako tailerrak ematen, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako elizbarrutien ekimenez. Arrasaten ere hala egin du, hango katekisten laguntzarekin.

## Labur

### Oihulari Klownek 'La Espera' lana antzeztuko du Eskoriatzan

Oihulari Klown taldeak *La Espera* antzezlana aurkeztuko du hilaren 17an, egubakoitza, Eskoriatzako unibertsitatean. Sarrera doan izango da.

Antzerki talde horrek umorezko hausnarketa egiten du, maitasun, desira, sedukzio eta halako gaien aurrean ditugun estereotipoak aintzat hartuta. *Puxika* eta *Gregoretta* euren printze urdinaren zain daude, eta euren ametsak, gogoak… publikoarekin konpartitzen dituzte.

### Bertso afaria egingo dute zapatuan Arzalluz eta Agirrerekin

Artatxe elkarteak urtero egiten duen bertso afaria izango da zapatuan, hilak 18. Amets Arzalluz eta Joxe Agirre bertsolariak gonbidatu dituzten oraingoan elkarteko kideek.

Afarirako txartelak salgai daude Bergarako hainbat tabernetan: Pol-Pol eta Kortazar tabernetan eskuratu daitezke eta baita Artatxe elkartean bertan ere.

Txartelak aste osoan egongo dira salgai eta eskuratzeko azkeneko unea egubakoitz arratsaldea izango da.

### Rafael Fernandez Zubiagaren margolan berrien erakusketa dago

Rafael Fernandez Zubiaga margolari arrasatearrak bere lan berrienen erakusketa ipiniko du Arrasateko Harresi aretoan, Iturriotz kalean. Eguenean, hilak 16, zabalduko du erakusketa.

Hogeita hamabi lan ipiniko ditu Zubiagak. Olioak dira, azken denboraldian egindakoak. Formatu aldetik, tamaina guztietakoak dira. Paisaiak margotu ditu Zubiagak, batez ere Kantabriako Liebana haranekoak. Erakusketa bisitatzeko aukera izango da otsailaren 28ra bitartean.

## Hitzorduak



**LAU EMANALDITARAKO SARRERAK SALGAI DAUDE BERGARAN |** Musika saio baterako eta hiru antzezlanetarako txartelak eros daitezke

Hainbat emanalditarako sarrerak erosteko aukera dago gaur (astelehena) ezkero. Honakoak dira emanaldiak: Udal Musika Bandaren eta Orkestra Sinfonikoaren kontzertua otsailaren 24an, eta txartelak kultura etxean eta Lazkano dendan daude; eta kultura etxean eta Elkar dendan daude Pirritx eta Porrotxen *Maite Zaitut* antzezlanerako sarrerak (otsailaren 25ean izango da), Ane Monna, Oskola eta Karramarroi taldearen antzerki musikalerako sarrerak (otsailaren 26an) eta Glu Glu taldearen *Todos Nacemos Vascos* antzezlana ikusteko sarrerak (martxoaren 31n izango da).

**ZINEMA |**

**• *George eta herensugea* filma emango dute Oñatin**
Bihar, martitzena, emango dute film hori Santa Ana antzokian, 18:00etan. Errekalde Herri Eskolak antolatu du emanaldia. Sarrera doan da.

**• *Una historia de violencia* filma emango dute Arrasaten**
Amaia antzokian emango dute film hori gaur, astelehena, 20:30ean.

**• *El jardinero fiel* filma emango dute Oñatin**
Kultura etxeko zinema aretoan emango dute filma gaur, astelehena, 19:30ean.

**• *Ray Charles* filma ikusteko modua izango da Elgetan**
Etzi, eguaztena, emango dute film hori Espaloia antzokian, 21:30ean.

**• *El viaje del emperador* filma emango dute Pake-Lekun**
Etzi, eguaztena, emango dute film hori Oñatin, Pake-Leku erretiratuen egoitzan, 17:00etan.

**• *La vida secreta de las palabras* filma Arrasaten**
Film hori emango dute eguenean, hilak 16, Amaia antzokian, 20:30ean, zineklubean.

**• *El cielo gira* delako filma emango dute Oñatin**
Eguenean, hilak 16, emango dute film hori zineklub saioan, Oñatiko kultura etxeko zinema aretoan, 20:00etan.

**ERAKUSKETAK |**

**• Karikaturen erakusketa dago Espaloia antzokian**
Maria Dolores Lonbide soraluzetarraren margolan erakusketa ipintzekoak ziren Espaloian, baina atzeratu egin behar izan dute. Horren ordez, karikatura erakusketa dago hilaren 25era arte.

**• Iñaki Moreno Ruiz de Eginoren artelan erakusketa**
Iñaki Moreno Ruiz de Eginok (Donostia, 1953) lan grafiko eta eskultura erakusketa du Bergarako Aroztegi aretoan.

**• Dani Laskurainen 18 margolanen erakusketa**
Dani Laskurain (Bergara, 1966) margolariaren 18 lan daude erakusketan Masterreka kaleko Nahikari tabernan otsail osoan.

**• Sarekide erakusketa ipiniko dute Aramaion**
Sarekide erakusketa ipiniko dute gaur, astelehena, Aramaion, Sastiñan, hilaren 23ra arte, astegunetan. Teknologia berriek landa eremuetan zelan aplikatu erakusten du.

**ANTZERKIA |**

**• Umeendako ipuin kontaketa saioa antolatu dute**
Ipuinak kontatuko dizkie Peio Añorga kontalariak 5 urtetik gorako umeei eguenean, hilak 16, Eskoriatzako liburutegian, 18:00etan.

**LEHIAKETAK |**

**• Opera Prima narratiba sariak deitu dituzte**
Ereinek, Euskadiko Kutxak eta Donostiako Udalak Opera Prima narratiba sariak deitu dituzte, euskarazko lanak saritzeko. 24.000 euroko saria dago. Argibide gehiago, *www.erein.com/saria.htm* webgunean.

**IKUSKIZUNAK |**

**• Mozambikeren gaineko argazki emanaldi eta hitzaldia**
*Mozambike, lehoi gabeko herria* delako argazki proiekzioa eta berbaldia egingo ditu Iñigo Urrutiak. Zahar Berri taldeak antolatutako ekintza da. Eguenean, hilak 16, izango da, Arrasateko Monterron jauregian, 18:00etan.

**DEIAK |**

**• Bingoa izango dute Pake-Lekuko erretiratuek**
Bingo saioa izango dute eguenean, hilak 16, Oñatiko Pake-Leku erretiratuen egoitzakoek, 17:00etan.

**MUSIKA |**

**• Organo kontzertua emango dute hilaren 18an, zapatua**
Easo Abesbatzak eta Oscar Candendo Zabala organojotzaileak kontzertua egingo dute hilaren 18an, Bergarako San Pedro parrokian, 20:00etan.

## Eguraldia



Astelehena, 13 | Martitzena, 14 | Eguaztena, 15 | Eguena, 16 | Egubakoitza, 17

### Tenperatura pixka bat epelagoak eta euria aste erditik aurrera

Eguna erdi mailako hodei eta goi-hodeiekin hasiko dugu, bereziki eguneko lehen partean. Goizaldean giro freskoa izango da, baina eguerdi parterako baztèrrak epelduko dira. Haizea aldakor ibiliko da, baina hego ukituarekin. Bihar, martitzena, hodei gehiago izango ditugu, bereziki arratsaldean, eta azken orduetan euri pixka bat egin lezake. Goizaldean giroa zerbait epelagoa izango da, baina tenperatura maximoak pixka bat baxuagoak izango dira. Eguazten eta eguenean iluntze aldera egingo du eta euria ere egingo du. Egubakoitzean ere euria egingo du, baina ostarteak zabaltzen joango dira.

## Goardiako farmaziak

**ARRASATE**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 13** | Zabala | Zarugalde, 42-44 (943 77 16 30) |
| **Martitzena, 14** | Azkoaga | Ferrerias, 1 (943 79 15 15) |
| **Eguaztena, 15** | Azkoaga | Iturriotz, 17 (943 79 79 99) |
| **Eguena, 16** | Corcuera | Maisu Aranbarri, 1 1 (943 79 22 26) |
| **Egubakoitza, 17** | Irizar | Erguin kalea, 11 (943 79 12 39) |

**BERGARA**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 13** | Camacho | Oxirondo, 4 (943 76 16 87) |
| **Martitzena, 14** | Zabala | Barrenkalea, 25 (943 76 16 87) |
| **Eguaztena, 15** | Guallar | San Antonio, 5 (943 76 11 05) |
| **Eguena, 16** | Estella | Matxiategi, 5 (943 76 19 63) |
| **Egubakoitza, 17** | Mozos | Iparragirre, 2 (943 76 12 15) |

**OÑATI**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 13** | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 (943 78 01 22) |
| **Martitzena, 14** | Barrenetxea | Kale Zaharra, 1 (943 78 11 28) |
| **Eguaztena, 15** | Garate | Kale Barria, 42 (943 78 05 58) |
| **Eguena, 16** | Garate | Kale Barria, 42 (943 78 05 58) |
| **Egubakoitza, 17** | Juldain | Kale Barria, 6 (943 78 11 28) |

**ARETXABALETA**

| | | |
|---|---|---|
| **Astelehena, 13** | Fraile | Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99) |
| **Martitzena, 14** | Fraile | Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99) |
| **Eguaztena, 15** | Fraile | Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99) |
| **Eguena, 16** | Fraile | Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99) |
| **Egubakoitza, 17** | Fraile | Herriko Plaza, 10 (943 79 21 99) |

## Telefono jakingarriak

**((112)) SOS DEIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

| | |
|---|---|
| OSAKIDETZA (Larrial.) | 943 46 11 11 |
| DYA (Orokorra) | 943 46 46 22 |
| DYA ( Antzuola) | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 22 22 22 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Ertzaintza | |
| Arrasate | 943 79 71 99 |
| Bergara | 943 53 47 20 |
| Osasun Etxeak | |
| Arrasateko Ospital. | 943 03 53 00 |
| Antzuola | 943 76 62 23 |
| Aramaio | 945 44 53 40 |
| Aretxabaleta | 943 71 19 59 |
| Bergara | 943 03 54 00 |
| Elgeta | 943 78 90 27 |
| Eskoriatza | 943 71 44 52 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 03 54 30 |
| Hies Ekimena | 943 79 26 99 |
| Udaltzaingoak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 14 39 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 63 |
| Bergara | 943 77 91 06 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

**GARRAIOAK**

| | |
|---|---|
| Eusko Trenbideak | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | |
| Arrasate | 943 79 12 22 |
| Aramaio | 945 44 50 33 |
| Aretxabaleta | 943 79 22 33 |
| Bergara | 943 79 12 22 |
| Eskoriatza | 943 71 40 59 |
| Oñati | 943 78 03 65 |
| RENFE | 943 28 35 99 |

**DEBAGOIENA**

| | |
|---|---|
| Mankomunitatea | 943 79 33 99 |
| Hiltegia (Zubillaga) | 943 78 21 93 |
| Mendi nekazaritza elk. | 943 76 25 47 |
| Nekazaritza Ganbera | 943 76 10 15 |
| Zerga Bulegoa | 943 76 58 63 |
| Euskara Taldeak | |
| Debagune | 943 77 12 28 |
| AED / Arrasate | 943 77 12 28 |
| Axtroki / Eskoriatza | 943 71 54 34 |
| Goibeko / Elgeta | 943 78 90 85 |
| Loramendi / Aretx. | 943 77 09 70 |
| Jardun / Bergara | 943 76 08 19 |
| Laixan / Oñati | 943 71 63 11 |
| Hondakindegi Alternatiboak | |
| Arrasate | 943 77 11 43 |
| Bergara | 945 76 44 42 |
| Oñati | 943 78 36 67 |
| Kiroldegiak | |
| Aramaio | 945 44 53 35 |
| Arrasate | 943 77 16 77 |
| Aretxabaleta | 943 71 26 28 |
| Bergara | 943 76 56 41 |
| Elgeta | 943 76 82 84 |
| Eskoriatza | 943 71 53 28 |
| Oñati | 943 71 63 75 |
| Kultura Etxeak | |
| Antzuola | 943 76 60 65 |
| Aramaio | 945 44 53 74 |
| Arrasate | 943 77 01 05 |
| Aretxabaleta | 943 71 10 27 |
| Bergara | 943 77 91 58 |
| Eskoriatza | 943 71 46 88 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 03 53 |
| Udalak | |
| Antzuola | 943 76 62 46 |
| Aramaio | 945 44 50 16 |
| Arrasate | 943 79 09 00 |
| Aretxabaleta | 943 71 18 62 |
| Bergara | 943 77 91 00 |
| Elgeta | 943 76 80 22 |
| Eskoriatza | 943 71 44 07 |
| Leintz Gatzaga | 943 71 47 46 |
| Oñati | 943 78 04 11 |

## Zozketak

**BONOLOTOA**

Astelehena, 6
**6 • 10 • 16 • 38 • 39 • 42**
Osagarria: 17 | Itzulketa: 4

Martitzena, 7
**6 • 13 • 27 • 40 • 41 • 47**
Osagarria: 3 | Itzulketa: 8

Eguaztena, 8
**8 • 15 • 32 • 43 • 46 • 47**
Osagarria: 19 | Itzulketa: 6

Egubakoitza, 10
**6 • 13 • 16 • 20 • 34 • 39**
Osagarria: 5 | Itzulketa: 4

**ONCE**

| | |
|---|---|
| Astelehena, 6 | **21.795** |
| Martitzena, 7 | **76.885** |
| Eguaztena, 8 | **66.407** |
| Eguena, 9 | **59.538** |
| Egubakoitza, 10 | **65.717** |
| Kupoitzarra (092 seriea) | |
| Domeka 12 | **19.140** |
| Kupoitzarra (033 seriea) | |

**LOTERIA PRIMITIBOA**

Eguena, 9
**1 • 11 • 12 • 16 • 28 • 43**
Osagarria: 5 | Itzulketa: 3

Zapatua, 4
**3 • 4 • 5 • 28 • 33 • 49**
Osagarria: 37 | Itzulketa: 2

Zapatua, 4 (Saritzarra)
**19 • 20 • 26 • 31 • 39**
Itzulketa: 7

## Gazte zerbitzuak

**IKASTAROAK |**
• **Begiraleak.** Hezkide Eskola. "Haurren Eta Gazteen Astialdiko Begiralea". Lekua: eskolak Larraulen duen baserrian. Epea: otsailak 13.

**LEHIAKETAK |**
• **Koldo Eleizalde Lehiaketa, XXI. Edizioa.** Bergarako Udala. Lehiaketa honetan Bergaran jaio, bizi edo lan egiten duen edozeinek har dezake parte; bakarka zein taldeka. Komiki eta bertsoen sailean aldiz, Debagoieneko edozeinek hartu ahal izango du parte. Epea: apirilak 28.
• **Literatura.** Donostiako Deustuko Unibertsitatea-Donostia. IX. literatur lehiaketa egingo du Deustuko Unibertsitateak. Euskaraz zein gaztelaniaz idatzitako lanak aurkez daitezke. Modalitateak: kontakizuna eta poesia. Epea: maiatzak 5.

**BEKAK |**
• **Arkeologia.** Jose Migel Barandiaran Fundazioa. Ikerketa arkeologikorako beka bat eskaintzen du Barandiaran fundazioak. Iraupena: 2 urte. Epea: otsailak 28.

